

Ahoskera hiztunik hiztun eta eskualderik eskualde

La pronunciación de hablante a hablante, de comarca en comarca

La prononciation de locuteur à locuteur, région par région

Pronunciation from speaker to speaker and district to district

CAMINO, Iñaki
(UPV/EHU)

Noiz jaso: 2016-02-29

Noiz onartua: 2016-05-15

Euskera. 2015, 60, 2. 409-450. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskal ahoskeraren gaiari datu biltzen diharduen dialektologialariaren ikuspegitik heldu zaio saio honetan. Jardunbide honek ikertzailea hiztunaren eta haren ahozko mintzoaren aitzinean jartzen du, eta grabatu dena transkribatzen hastetik beretik sortzen dira lehen auziak. Non ez azterketa fonetiko xeheetarako izan, dialektologialariak belarriz lan egiten du eta etnotestuak transkribatzerakoan mintzo estandarrekoak ez diren hainbat hots eta bilakabide islatu beharra du. Saio honetan Ipar Euskal Herriko ekialdeko ahozko mintzoa islatzeak berekin dakartzan ñabardurak eta berezitasunak ageri dira.

Hitz-gakoak: ahoskera estandarra, ahoskeraren gardentasunik eza, hasperena, sudurkaritasuna bokaletan, *ü* fonema.

Abordamos el tema de la pronunciación desde la perspectiva del dialectólogo que recoge y analiza los datos. Tal disciplina enfrenta al investigador con el habla y la pronunciación de distintos hablantes. Las disquisiciones comienzan desde el mismo momento de la transcripción de lo grabado. Si no es para análisis fonéticos muy concretos, el dialectólogo trabaja por medio de su oído y al transcribir etnotextos muestra sonidos y procesos que no pertenecen al habla estándar; nuestro trabajo muestra características y matices que aparecen al reflejar los datos correspondientes al habla oriental del Norte del País Vasco.

Palabras clave: pronunciación estándar, pronunciación difusa, aspiración, nasalidad en vocales, fonema *ü*.

Nous abordons le thème de la prononciation basque du point de vue du dialectologue qui collecte et analyse des données sur la phonétique basque. Cette discipline met le chercheur face au parler et à la prononciation de différents locuteurs. Les divergences commencent au moment même de la transcription des enregistrements. Si ce n'est pas pour l'analyse phonétique de cas très concrets, le dialectologue travaille avec son oreille et lorsqu'il transcrit des ethnotextes, il montre des sons et des processus qui n'appartiennent pas au parler standard ; notre travail présente des caractéristiques et des nuances qui reflètent les données correspondant au parler du Pays Basque Nord oriental.

Mots-clés: prononciation standard, prononciation diffuse, aspiration, voyelles nasales, phonème *ü*.

We deal with the subject of pronunciation from the point of view of the dialectologist that collects and studies informations about Basque language phonetics. This discipline faces the researcher with the language and the pronunciation of different speakers. The disquisitions begin at the very first moment of recorded material's transcription. Unless it is for a very detailed phonetic analysis, the dialectologist works with his hearing, and transcribing the ethnotexts shows sounds and processes that don't belong to standard language. Our work shows features and nuances that appear after reflecting the informations of spoken language in the east of Northern Basque Country.

Keywords: standard pronunciation, diffused pronunciation, aspiration, nasal vowels, phoneme *ü*

1. Sarbidea

Ahoskeraz hitzaldi bat egitera gonbidatu nautelarik ahalkea eta beldurra nahaska sentitu ditut: zer esan nezake nik gaiaz? Zer balio du dialektologian diharduen lagun baten ikuspegi edo iritziak euskal ahoskeran interes teorikoa ukan lezakeenarentzat? Eta zer konta niezaieke hedabideen zuzeneko emanaldietan baliatzeko ahoskera arloko irizpide argi eta zehatzak behar dituzten kazetari eta aurkezleei nik? Haurrak euskalduntzen nahikoa lan duten irakasle-andereñoei zein aholku eman niezaieke euskal ahoskeraz? Hasieran jokoz kanpo banengoen ere, anitz pentsatu ondotik baiezkoa eman diot gonbitari, baina ez pentsa segurtasuna sentitu dudalako izan denik.

Dialektologiako datuen bildumak hiztunekin aurrez aurre egotera eta ondotik banda edo grabazio horiek entzun, berrentzun eta kudeatzera behartzen du ikertzailea. Datu-biltzaile naizen aldetik, ene asmoa euskal hiztunen ahotik Ipar Euskal Herri barreneko alderdiaren ekialdean zer entzuten den kontatzea da, euskararen munduko gure arteko jende batzuek euskal ahoskeraz ukan dezaketen ezagutza orokorrari maila bat gehiago eransteke besterik ez bada ere; helburu hori erdietsiz gero, ene aldetik aski litzateke. Halaz guztiz ere, ahoskeraren gaiari dagozkion arlo edo atal orokorxeago batzuen berri ere ekarri nahiko nuke saioaren hasierako lerro hauetan.

Hasieratik garbi adierazi nahi dut ez naizela fonetika artikulatorioaz edo akustikoaz nahiz fonologiaz maila teorikoan aritzera etorri, ez nintzateke gai: Hyman, Malmberg, Hurch, Llisterri, Mascaró, Hooper eta abar beste garai batean irakurri edo ikasitako gaien artean gelditu ziren eta ez ditut geroztik sakonago landu, intuizioz jardun dut nik ahoskerari dagozkion afe-retan. Fonetikako tresneriarik baliatu gabe, belarriz eta intuizioz, fonologiaz jakin dezakedantxo gogoan: dialektoen arloan deskribatzeko edo mugak finkatu ahal izateko adierazgarri diren desberdintasunen eta ezaugarrien isla diren ahots zertzeladak ditut nagusiki bilatzen, ez naiz hauen ezaugarri fonikoak sakon aztertzea murgiltzen, hori fonetistek dakite egiten, nahiz baidiren Euskal Herrian dialektoen azterketatik hotsen azterketa xehe eta soziolinguistikora iragan diren lankideak ere, Irantzu Epelde bat, besteak

beste. Ingeniariaren laguntzaren bidez ahotsa sakon lantzeraz dialektologiatik iragan den ikertzailek ere bada gure artean; hori da Iñaki Gamindek egin duena, emaitza zientifiko oparoa ekarriko, gainera.

2. Batasunaren saihestak

Estandarizazioaren bidean abiatu den euskara bezalako hizkuntza baten etorkizunerako, garrantzi handiko eginkizuna izan zen ortografia eta morfologia batzea, euskaldunon gizarte ttikian eztabaida, grina eta iskanbila eragin zituen. Euskal hitzak ere ari dira orain batzen; emeki-emeki ematen dituzte euskaltzainek eta horretarako eratu batzorde bereziko kideek zerrendaren hurrenkeran, baina sintaxiaz ez du inork deus esan; ez luke kanore handirik arlo hau ere batu nahiak eta ez dirudi hurren urteetan inork alderdi honetaz planteamendu uniformizatzailek defendatuko duenik.

Ahoskerarena, ordea, ez da afera erraza, izan ere, ez baita idazteko bazen, izatekotan mintzatzeko batuko litzateke eta oro har, idazketa baino, jardun garrantzizkoagoa da pertsonarentzat mintzoa. Segurtasunez ahoskatzen eta hitz egiten ez duen laguna ez da bere buruaz ziur sentitzen eta entzuten duen hura xuxen deskodetzen ez duen hiztuna ere ez da ongi sentitzen. Usu entzuten dugu Amikuzeko euskara eta Zuberoakoa hurbil daudela, bata bestearen ondoko ibarrak izanik elkarrekin berriztatu dituztela ezaugarri batzuk, beren arteko hizkuntza-komunikazio maila gora dela, baina Zuberoako mugaren ondoko Amikuzeko gizon gamuetar bat ez zaigu guri honela mintzatu (2005):

(...) gio goiti juiten bazira, horrat, tXüberaat, etziü fitsik konprenitzen, e; guk bi urthe pasatü tziu Atharratzen, na ez gintzin(...) sofitrü diizi, e, ez gintzin konprenditzen.

Bat baino gehiago izan daitezkeen arrazoiengatik, Euskaltzaindiaren inguruan hainbat lagunek galdegin dute euskal ahoskera batzea: eman dezagun, Txillardegik behin baino gehiagotan idatziz egin zuen (1986, 1987, 1992) eta Piarres Xarritoni ahoz entzun diogu ahoskerarako ere erabaki batzuk hartu behar direla. Xabier Kintanari ere entzun diogu ahozko euskara jantziari gutieneko baldintza batzuk ezarri behar zaizkiola; hedabideetako

langile batzuen ahoskeraz kexu idatzi ohi du: «(...)esatari guztiei ez zaie beti hizkuntz kontrol onik egiten. Horregatik mikrofono-aurrean mintzatu behar duten pertsona askok beste edozein hizkuntzetan onartuko ez liratekeen arduragabekeriak, ebakera txarra, era dialektalak eta erdarakadak aireratzzen dizkigute» (1992, 41-42). Ahoskeraz erabakiak hartu beharra ere usu aldarrikatu du euskaltzain bilbotar honek, halako fonemaren ebakera bataren alde eta bestearen aurka: «Bestalde, hizkuntzaren sistema fonetiko standarra erabakitzeko dago oraindik (khotaismoa eta yeismoa, kasu, hor dira). Baina urte asko iragan arren, Euskaltzaindia ez zaigu dei horien aurrean oso sentikor azaldu» (48).

Ahoskeraren arloko erabakien bidez euskal hiztunari gauzak sobera bortxatzeko halako herabetasuna agertu dute beste euskaltzain batzuek eta ikerketa gehiago galdegin, erabakiak hartzen hasi beharrean lana patxadan egin ahal izateko. Berebat, irakaskuntzaren esku-hartze globalagoa ere aldarrikatu da Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordetik, haurren hezkuntzako ikastetxeetan ahoskerari garrantzi eta ondorioz presentzia handiagoa eman dakion. Guk uste eskaera honekiko ez litzatekeen hain paradoxikoa, hiztunarentzat ahoskera den bezain gauza naturala gehiegi ez behartzeko ardura hartzea: ustez, bide honetan dakusagu Miren Lourdes Oñederraren jarduna hondarreko urteotan. Funtsean, ahoskeraren arloko gaiak artean sobera ukitu ez badira, seinale eginkizuna ez dela txantxetakoa eta erraza; hain segur, adar bat baino gehiago ukitzen du: hizkuntzaz landa, joko honetako partaideak euskal hiztunak dira, azken buruan pertsonak, hala hiztun xeheak nola euskararen munduko langile franko.

Arlo honetan, gainera, iritziak ez daude baitezpada alderdi bateko nahiz besteko saihetsean, franko jenderen ikuspegia mailaz maila bide-erdi haratago edo honatago kokatu ohi da. Eman dezagun, hots bataren ala bestearen aldeko arautze hautua arrazoitzeko juzgu soziologiko edo demolinguitikoak egon litezke, esate batera /j/ ahoskatzeko baldin [x] hotsa proposa baledi, baina hizkuntzan hauek ez dira arrazoi bakarrak. Hots baten kide den beste hotsaren alde arrazoi geografikoak edo euskalki arrazoiak ere aipa litezke, dakigun bezala [j] hotsa Ipar Euskal Herri eta Nafarroa gehienekoa eta Bizkaiko saihets handi batekoa baldin bada. Arrazoi kronologikoak ere argudia litezke, esate batera, fonema batez ditugun hotsetan guk dakigula

bata zaharrena edo zaharragoa bederen baldin bada, [j] hotsa [x] baino zaharrago dela dakigun aldetik, baina honelako auzietan gauzak ez dira matematika hutsa izaten eta arrazoi kronologiko, historiko, literario edo filologikoak ez dira aski izaten arrazoi soziologikoek hiztun kopururik handienaren alde jotzen dutenean, batez ere hots bat hizkuntzaren erdigune geografikoan homogeneous den kasuetan, hizkuntzaren saihets edo batzerrak galtzaile aterarik, baina euskal [x] eta [j] hotsen kasuan zabala da [j] hotsaren hedadura; Euskal Herriko aski erdiguneko eskualde batzuetan ere erabiltzen da [j]. Ageri denez, arrazoi konbinazioak eta hots baten hedaduraren konbinazio geografikoak berak, guk nahi baino bihurriagoak izan ohi dira eta halaxe dira usu euskaraz ere.

Jatortasunari dagozkion arrazoiak ere baliatu ohi dira eta ez dira hutsaren hurrengoak: euskarari guk nahi baino indar gehiagoz eragiten dion erdarazko hotsa ez bezalakoa den beste bat hobetsi ohi dugu euskaldunok usu. 1802an Juan Antonio Mogelek *Peru Abarka*-ren hitzaurrean zioskunez, zinezko euskaldun garbiek ez dute *alferra*, *afaria* edo *ifini* esaten, *alperra*, *aparia*, *ipini* baizik; zekarrenez, ezin ahoskatu dute *Fernando*, *Francisco*, *fiesta* edo *función* eta haurrei ere neke zitzaien erdaldunek bezala *f* ahoskatzea (1956 [1802], 17). Gauzak areago korapilatzen dira tartean estetika edo juzgu inpresionistak sartzan hasiz gero: Mogelek zioenez, «frantses euskaldunek» beren idazlanak *h-z* betetzen dituzte eta hitzak beste era batera ebakitzen; bera bezalakoan belarrirako ahoskera gozakaitz, latz eta baldarra zeritzon hasperenari (18).

Arlo soziolinguistikoa ere ukitzen du mintzoak, balio sinbolikoa duen aldetik: artean gertatu ez bezala, estandarizazioaren ondoko aldian ahoskera jakin batek prestigio berria har dezake ala prejuizioa eragin diezaieke beste entzule batzuei.

Badakigu hizkuntza-aldaketek inoiz gizarte-motibazioa ukan dezaketela. William Labov soziolinguistaren 1972ko ikerlanagatik ospetsu bihurtu da ekialdeko Ipar Amerikako Massachusettsen Martha's Vineyard uhartea; bertako hiztunek /ay/ eta /aw/ diptongoen ahoskera arras zentralizatua egitera jo zuten, bereziki 31-45 urte bitarteko jendeek, betiere aldea azpifonemikoa izanik. Lehenago ondu ingelesaren hizkuntza-atlasetan uharteko

emaitzak islaturik baitzeuden, aitzineko belaunaldiei bildu emaitzak 1961eko ahoskerarekin alderatu zituen Labov-ek. Hizkuntzazko etno-demarkazio betean, nor den nor eta batez ere nongoa den adierazi nahiz bezala, beren nortasunaren agergarri, urteroko ekain-uztailetako berrogeita bi mila udatiar bostondarrek ez legez, urtean zehar uhartean bizi diren gizon gazteek, oharkabean nahiz beren borondatez, uharteko arrantzaleen ohitura zaharragora eraman zuten aipatu bi diptongoen ahoskera.

Pertsonak norbanako eta aldi berean taldekide ere bagaren aldetik, gizarte maila jakin batekin, jatorri geografiko batekin ala kultura erreferentzia berezi batzuekin identifikatzen genezake fonema baten ahoskera jakin bat eta kasu batzuetan ez da txantxetako edo jolaserako gaia: norberaren baitako ziurtasuna, duintasuna, talde-identifikazioa edo honako edo harako balioak... garrantzi handiko heldulekua baitira pertsonarentzat. Zenbait filologo, hizkuntzalari edo normalizatzailerik uste dute honelako gorabeherak belaunaldi bat, bat eta erdi ala gehienez bi iraun ohi dutela eta behin batasuna, estandarizazioa eta normalizazioa erabakiz gero, ahoskera-ohiturak biderkatzeko gaitasuna eta ahala duten hedabide, hezkuntza eta administrazioak gizartearen eta geografiaren alderdi gehienetara lerraraziko eta bideratuko dituztela ondotik ahoskera arau estandarizatuak: jende batzuk zaharrez hiltzea eta beste batzuk sortzea eta heztea bezain gauza automatiko eta lineala delakoan.

Gaiak, gainera, gaurkotasuna ukan du berri: fonetikaren eta fonologiaren jakintzagaietan aditua den Jose Ignacio Hualdek ahoskeraren aldetik euskara hizkuntza itzalitza jo daitekeela idatzi du 2015 honetan eta lagun batzuek aurre egin eta tinko erantzun diote Euskal Herrian Illinoisko ikertzaileari. Eta auzia dago gai honetan. Alde batetik zer den eta zer ez den euskal ahoskera, zein den ahoskera egokia eta zein ez, eta zein erregistrotan, bai baitakigu euskal hiztunen belaunaldietako segmentu batzuetan frantsesa eta gaztelania euskal ahoskera aldarazten eta higitzen ari direla; aise «dantzugu» euskarak dituen ezaugarri batzuk erdaren aitzinean neutralizatzen ari direla eta besterena gurera kutsatzen; ez guk uste bezain emeki, gainera.

Ordea, euskal ahoskera zer den eta zer ez den finkatzen hastean, ikuspegi historikoa eta geografiko-dialektala edukitzeak ez digu batere kalte egi-

nen; euskal herrialde guztietako mintzoa hein batean ezagutzen duenak badaki ahoskera batzuen eta besteen *continuum* luzean euskalkiek bide dibergenteak har ditzaketela eta hartu ere dituztela; era guztietako bideak zabaldu dira eta usu euskal ahoskera jotortzat jotzen ditugun hainbat joera, ohitura edo are arau, eskualde laburragoko ala zabalagoko euskara dira, ez dira euskara orokorra, batua edo estandarra, ez dira Hegoalde guztian edo Iparralde osoan nagusitu joerak; eta ez dira betikoak ere. Orain euskal ahoskera jatorraren ezaugarritzat jotzen dugun hori, bere garaian ez zuen testu zaharretako idazkerak islatzen eta ondoko berrikuntzatzat jo beharko litzatekeela ulertzera heldu gara. Euskaldun bat *rts*, *ntx* edo *rtz* egin beharrean *ersi*, *hanxe*, *horxe*, *sagarze* ahoskatzen ari denean, beharbada «euskal» ezaugarri zahar bat gordetzen ari da, nahiz egungo gure belarriak hitz horietan euskarak hots afrikatuak eman beharko lituzkeela sentitzen duen.

Ez bedi pentsa saio honetan parte hartzea interes ideologikoaz edo teorioaz ideia batzuen alde jotzeko onetsi dudanik, ez nator ahoskera egokia zein den eta zein ez den adieraztera, auzi horretan badudalako berezko halako ezintasun gogorra; garbizalexe naiz eta ez ditut gogoko erdaratikako zenbait azentuera edo ahoskera berri. Halaz guztiz ere, iduri luke gure arteko zenbait jende euskaltzalek pentsatzen duela Gipuzkoa edo Bizkaikoa ez den euskal azentuera oro erdararak kutsaturik dagoela; gauzak, ordea, ez dira hain xinpleak. Berri itxura eduki lezakeen hainbat doinu eta azentuera entzun daiteke dialektologiako grabazioetan, eman dezagun Nafarroa Garaian edo ekialderago ere, baina Bizkai-Gipuzkoetakoak bezain euskarazkoak eta egokiak dira horiek ere. Erdal kutsuko azentuera eta doinu trokaiko berri horren aurka jo nahirik, euskal azentuera egokia Beterrikoarekin identifikatzeko joera izaten da usu, baina uler litekeenez Euskal Herriko zeinahi bazterretan egiten da ahoskera eta azentuera egokia.

Iparraldean frantsesak eta Hegoaldean gaztelaniak euskarari eragiten dioten erdararatze joeraren aurka lanean dihardute euskalgintzako hainbat kidek, euskarago diren erak bultzatu nahirik. Ildo honetan, Eusko Jaurlaritzak Andres Alberdi egile duen *Ahoskera* izeneko liburua argitaratu du berri. Haren orriak eskuztatzen hasi orduko ohartu naiz lana Hegoaldetik begira idatzi dela, nahiz laguntzaile eta lankideen artean badiren Ipar Euskal Herriko ahoskera ongi ezagutzen duten bi lagun, baina zerrendan ez dago Ipar

Euskal Herriko edo Nafarroako inor. Liburuaren helburu eta iparra balirudike dela, Bilbon, Durangon, Amurrion, Gasteizen, Agurainen, Lizarran, Tafallan edo Iruñean ikasle euskaldun berrien aitzinean eskolak eman behar dituenak halako oinarri bat edukitzea ahoskera gaietan.

Iduri luke liburuaren erabileraren bidez erdal kutsuko euskal ahoskera saihestu nahi dela, hainbat euskaldun berrik duten mintzo gordin hori leundu eta jatorragoko beste batez ordezkatzeko. Euskararen irakasle ororen borondate zintzoaren erakusgarri den aldetik, inolaz ere ez ninteke asmo honen aurka egon. Gaiak garrantzi handia du eta ez nuke nahi adierazpen honetan inork ikusterik liburu hau kritikatzeko ari naizenik, baina hango eta hemengo hainbat euskaldunentzat minbera gerta litezkeen gaiak ezkutatzeko ere ezin hasiko naiz. Adibidexko batzuek argi adieraziko dute zer erakutsi nahi dudana.

Ahoskera izeneko liburuak dakar Euskaltzaindiak dioela euskara zaindurako *esan zuen* «esantzuen» edo *han zebilen* «hantzebilen» ahoskatu behar dela afrikazio hau egiten duten hizkeretan (Alberdi 2014, 28-29); zuzen dabil egilea, afrikatze berri hau ez baita eskualde orotakoa. Hego Euskal Herrian badira nafarrak egoera zaharrari eusten diotenak, aditz nagusia eta laguntzailea biltzen diren sandhi horretan afrikaziorik egiten ez dutenak: Burundan –*esan zegín* Altsasun– edo Erronkari ibarrean –*erraiten ziezun* Izaban– eta badira nafar eskualde batzuk afrikazio hori egiten dutenak, baina ez era sistematikoan: *erosten zute* «erosten zuten» eta *eman tzako* «eman zion» erako kontsonante taldeak txandakatzeko dituzte Aezkoan. Alta, Ipar Euskal Herri barreneko franko euskaldunek *jinak ziren* «jinatzien» ahoskatzen dute, *k + z* kontsonante clusterraren ondorioz *z* afrikatuz, baina *Ahoskera* izeneko liburu honetan ez zaigu aholkatzen ahoskera afrikatu hau; al-diz, Bizkai-Gipuzkoetakoa bai.

Liburuak dio ere Hegoaldean ez dela *h* ahoskatzen eta *ez haiz* eta *ez huke* «ezaiz» eta «ezuke» ahoskatu behar direla, baina *h* ahoskatzen den hizkeretan egokiak direla «ehaiz» edo «ehuke» moldeko ahoskerak (28); ordea, Hegoaldean *yaiç* & *yaz* & *yiz*, *yago*, *yintze(n)*, *yue(n)* edo *yuke* ahoskatzen duten euskaldun nafar ugariei ez zaie adierazten «eyaiz», «eyago» edo «eyuke» erako ahoskatzea egoki dela; nonbait, euskaldun nafar horiek ez dauke euskal ahoskerazko Eusko Jaurlaritzaren liburu honen jokalekuan.

Liburuan azentuera aipatzen den atalean ahoskeraren gai honi Gipuzkoatik eta bereziki Beterritik so egin zaiola sumatu dugu; ezkerretik hasirik bigarren silaban hobesten da azentua, bere garaian Txillardegik proposatu bezala (1992, 65-70). Gipuzkoan ezkerretik hasirik hirugarrenean koka daiteke azentua Urolan (Hualde 1993b) eta esate batera, Goierriko Zaldibian baita hitz batzuetan hirugarren eta laugarrenean ere, adineko jendeen mintzoan (Garmendia 2008, 105 eta 108). Euskal Herriko ekialdeko eta Nafarroako euskaldun anitzek ere bigarren silaban kokatzen dute azentua, baina eskuinetik hasirik. Bultzatzen den ahoskeran doinu batzuk hobetsi dira liburuan, baina egileak ez du hau-tuaz arrazoirik agertu; beharbada ikasteko pausu zehatzak direlako eta eredu honek arrakasta ukan dezakeela pentsatzen delako? Baldin aholkuak honela plazaratzen badira, hurranen urratsa izan liteke euskaltzale batzuek pentsatzea egokitasuna eta batasuna Beterriko era horietan dagoela eta ez besteetan.

Etorkizuneko euskara jantzia ahoskera aldetik batu behar dela pentsatzeko eskubidea dute euskaltzaleek; berebat, azentuerari dagokionez erdal kutsuko doinu trokaiko berri horri aurre egiteko bide eragingarriena Beterriko azentuera proposatzea eta bultzatzea dela senti dezakete ere; bakoitzak daki bere berri. Era guztietako arrazoiak egon daitezke burubide bat ala beste, iritziak eta pentsamolde bereziak izateko eta hautu hau ala hura egiteko, baina auzia ez da jolasa. Erabakiak hartzen hasi baino lehen komenigarri da egin diren hautuen aldeko arrazoiak argitzea. Gaiaren arlo eta adar guztiei so egin behar zaie, neurbide egoki eta ahalik objektiboenen alde lerratu behar da, hizkuntzaren eta hiztunen mesedetan, betiere ikuspegi hertsietarik urrun.

Nolanahi ere den, dialektologiako langile naizen aldetik, ahoskerarekin nola edo halako lotura duten zenbait gai aurkeztea da egungo ene asmoa, ez naiz etorri 2014ko liburu honen edo beste zenbaiten aurka deus adieraztera; ez dut delako *Ahoskera* lana sakon ezagutzen eta ez naiz ideia jakin batzuk aurkeztera edo defendatzera etorri ere. Dialektoak aztertzeko eginahalean ikertzaileok usu hiztunekin aritzen baikara, euskal jende batzuek hizkuntza mintzatuko hotsak ahoskatzean ageri diren zenbait gertakari eta bilakabide aurkeztera etorri naiz.

3. Ipar Euskal Herriko ahozko datuen transkripzioa

Ipar Euskal Herriko gizartean eta hiztun euskaldunen gogoan frantsesa sakon errotu delarik, aldaketa gaitza gertatzen ari da hiztun ipartar anitzen hizkuntza ohituretan. 1980ko hamarkadan entzuten nituen 80 urte inguruko hiztun franko eta orain entzuten ditudan 80 urte ingurukoak ez dira berdinak euskararen erabileraren aldetik: bokalen ahoskera, dardarkariarena, hasperena, lexikoa oro har... aldatuz doaz, egungo hainbat hiztun ez dira fonikoki ordukoak bezain osoak, semi-hiztunaren tankera hartzen dute batzuek adierazpenak egiteko etengabe frantsesera jotzen dutenean; gutienek ezintasunagatik egiten dute, anitzek eguneroko ohitura edo inertziagatik, gizarte presioagatik, baina emaitza halako kode aldaketa da. Ez dezagun ahantz ez gutik prestigioagatik egiten dutela: haur denboran euskara baizik ez zekiten egungo hiztun elebidun hauek ederki menperatzen dute orain frantsesa eta hori erakustea, oharkabean baizik ez bada ere, onuragarri zaie, psikologikoki osasungarri.

Ezagutzen ditugun hondarreko hiru hamarkadotan gertatu dena ez da 80ko hamarkadako gaitza, lehenagotik ere gertatzen zen hau; min zuen egoeragatik 1896an Jean Hiriart-Urruti idazle hazpandar ezagunak (2004, 331):

Datozila español-eskualdunak mendiez hunaindirat: guk heientzat bezenbat erraiteko badukete heiek guretzat. Ezen gutartean ere ondikotz ikusgarri bera dugu begien aitzinean: zaharrak dire bakarrik beti eskuaraz mintzo. Bitarte adinekoak erdi eskuaraz, erdi frantsesez.

Ipar Euskal Herriko egungo euskara transkribatzen denean, ekialdeko euskarak berak izan ditzakeen ñabardura berezietz landa, frantsesaren eragina ere aintzat hartu behar da, euskara estandarretik urruntzen diren ahoskerak entzuten ditu dialektologian dabilenak, horrelako eremuan lan egiten du eta bokalen eta kontsonanteen ñabardurak islatu behar ditu... Datu bilteza eta transkribatzea ez dira atzo goizeko fenomenoak Euskal Herrian, tradizio sendoa dute bi jardun hauek; hona euskal geografian gaindi ahozko datu-bilduma eskerga bildu duten lau egitasmo:

Louis-Lucien Bonaparterena (1860 →)
Erizkizundi Irukoitza (1922-25)

Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (1984, 1990)

*Euskal Herri Hizkeren Atlas*a (2008 →)

Bestalde, franko etnotesturen transkripzioak egin eta argitaratu dira:

Julien Sacaze (1887), Edouard Bourciez (1894), Julien Vinson (1907, 1908, 1911), Georges Lacombe (1911-14), Rudolf Trebitsch (1913), Hermann Urtel (1916-17), Henri Gavel (1920, 1960), Resurrección María Azkue (1922, 1927, 1931, 1945), Amado Alonso (1923), Tomás Navarro Tomás (1923, 1925, 1926), William Rollo (1925), Jean Larrasket (1934, 1939), Nils M. Holmer (1950), Kandido Izagirre (1959-60), Koldo Mitxelena (1959 →), Jean Haritschelhar (1963, 1970), Geneviève N'Diaye (1970), Damaso Intza (1974), Nicole Moutard (1975-76), Koldo Artola (1977 →), Iñaki Gaminde (1980 →), Pello Salaburu (1984)...

Dialektologian gabiltzanok grabazioa egin ondotik ahoskera albait leialen entzuten eta emaitza aztertzen ordu ugari ematen dugu, baina hotsak transkribatze hori buruhauste bilakatzen da inoiz; hotsekin borrokan ari behar du batek eta ez daiteke uka zertxobait sufritzen dela. Bandan grabatu dena transkribatu behar izaten da eta *continuum* bat haustea edo neurbideetan marra bat irudikatzea bezalakoa da transkribatzea, interpretazio bat egitea da: azken buruan, erabakiak hartzea.

Aztertzen den euskara transkribatzailearen ohiko mintzotik zenbatenaz urrunago dagoen, hainbatenaz gehiago sufritzen da hori islatzeko, hainbat osagai ezezagun edo urrun baitatoz jokalekura. Halako borroka gertatzen da, behin eta berriz entzun behar baita hots bat; aldi batez era batera entzun uste dena, transkribatzaileak ondoko aldi batean beste era batera entzuten duela uste du: zer transkribatu eta nola egin ez da aise, egin den hautua ez da asebetegarri eta halakoxe sentikera ilunaz doa bat aitzinera.

Baina gatozen jokalekura: transkripzioak egiten dituen dialektologialariak zer du eskuartean? Hasteko grafia du bere tresneria, eta zein transkripzio mota egiten du? Ohiz ez da fonetikoa, fonologikoa da, baina fonema horien ahoskeran ñabardurak egin behar direlarik, orduan *claudator* artean hotsak era fonetikoan idazten ditu, fonetikako grafia baliatzen du, hiztunak zehazki zer ahoskatu duen argi geldi dadin. Eman dezagun, hiztunak [3]in ala jin

dioen adierazi behar du, edo dardarkariaren ahoskera hobikaria ala ubularra den, <rr> ala [R] idazten du etnotestuan; berebat, bokalarteko txistukari lepokaria ahostuna baldin bada, [z] idazten du: *etxe[z] etxe, etxeko[z] etxeko, e[z] anitx, e[z]untsa...* Eta ahostuna den bokalarteko txistukaria apikaria baldin bada, [ʒ] idazten du: *ai[ʒ]e, deu[ʒ]e, erreu[ʒ]itü, gi[ʒ]a, ü[ʒ]ü...*

Eta eman dezagun katea fonikoan hots batzuk ohi baino ahulago entzuten direla, honelakoetan goitixeago eman daiteke hots ahulki ahoskatu hori; hona adibide batzuk:

alaba ^ˈe, *ba'zo*^a*tzün*, *bitu*^u, *esnia*^a*kilan*, *he*^e*ndako* ^b*ezala*, *ho*^e*ei*, *ho*ⁱ,
ikhasia ^b*aitute*, *iz*^ʃ*arri*, *noa*^t *joan*, *ogia*ⁿ *saria*ⁿ, *O*^h*arren*, *untsa* ^s*inten*,
xut ^t*zun*...

Funtsean kasu gehienetan transkribatzeko IPA –*International Phonetic Alphabet*– ereduia ibiltzen da: IPA baliatuz, baina Euskaltzaindiaren EHHA euskal atlasaren jokoarari jarraikiz ere bai. Hona, adibidez, bokaletan zein ñabardura adieraz daitekeen:

- bokal sudurkariak: *ā, ē, ĩ, ō, ũ, [ỹ]*
- *ɑ*: «a» eta «e» arteko hotsa
- *ɛ*: «e» eta «i» arteko hotsa
- *ø*: «o» eta «u» arteko hotsa
- *æ*: «e» eta «o» arteko hotsa, maileguetan ageri den frantses fonema
- *ü*: «u» palatala, «u» hertsia, «u» eta «i» arteko fonema; egin liteke [y] ere, baina euskal etnotestuak transkribatzeko aski bortxatua gerta daiteke [y] eta aski ezaguna den «ü» ere balia daiteke
- [ʒ]: Zuberoako ohiko /j/, txistukari igurzkari sabaiaurreko ozen edo ahostuna
- [ʒ]: zenbait hitzen barrenean gertatzen da, txistukari igurzkari apikari ahostuna da
- [z]: txistukari igurzkari lepokari ahostuna; ondotik bokalez hasten den hitza duen ez hitzaren sandhietan aise entzun daiteke eta maileguetan ere bai; Amikuzen bada sandhietako ozentze edo ahostuntze hori, baina Zuberoan areago gertatzen da
- /j/: Nafarroa Behereko /j/ arrunta, hots sabaikari herskaria

- /i/: arestikoaren aldaera goxoagoa, hersketarik ez duena, *i* transkriba daiteke; eman dezagun, Arberoako Mehainen entzun *ioaiten* «joaiten, joaten»
- R: dardarkari ubularra, frantsesaren eite duena, hala Ipar Euskal Herrian nola Ipar Katalunian ahoskatzen dena, Hego Euskal Herrian eta Hego Katalunian ez bezalakoa; Ipar Euskal Herrian hiztun gazteetan eta adineko jende frankoren ahoan ageri da

Baina etnotestuen transkripzioak egiten ditugun guztiok ez dugu berdin jokatzeko; eman dezagun, honelako lanetan aspalditik diharduen Koldo Artolak <ä> idazten du *a* eta *e* artekoa eta *e* eta *i* artekoa, berriz, <ë>; *o* eta *u* artekoa, <ö>. Berebat, EAEL edo *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*-n Zuberoako /j/ sabaiaurreko ozena [ž] eman zen.

Baina zer transkribatzen dugu zinez? Ustez gure belarriak entzuten duena islatzen dugu testuan. Garbi dago hizkuntza-atlas batean lanean ari bagintez eta bi datu-biltzailek errealitate foniko bat eta bera desberdin entzun bagenez, batoren ala bestearen –ala bi transkribatzaileen– datuak faltsuak lirartekeela eta mapan isoglosa faltsuak edo artefaktuak agertuko lirartekeela. Ikertzaileen beren entzuteko gaitasun desberdinak aldeak eragin ohi ditu mapetara emaitzak eramatean edota entzuten dena edo entzun uste dena interpretatzerakoan; honelako adibideak ugari dira, esate batera, dialektologia erromanikoan: 1925eko *Tableaux phonétiques des patois suisses romands* lanak argi eta garbi utzi zuen inkestan zehar bi inkestatzailek hots bat eta bera desberdin entzun dezaketela.

Giza belarriaren oharmenean bada diskriminatzeko halako gaitasuna: gizakiak tresnak baino hobeki daki, informazioa deskodetzean hotsaren osagai guztietarik giza gogoak zeri garrantzia ematen dion; gizakia ez bezala, tresna gai da hots baten osagai guztiak edo gehienak diskriminatzeko eta neurtzeko, baina ez da gai giza gogoak hotsen osagai guztietarik zein diskriminatzen duen jakiteko, oharmenaren aldetik zein osagairi ematen dion zinez garrantzia berea ez bezalakoa den hots edo doinu bat entzutean, informazio hori hobekien hiztunaren oharmenaren azterketak eskainiko digu, tresna bidezko espektograma batek ez.

4. Ahoskeraren gardentasunaz eta euskararen kalitateaz

Hiztun ipartar batzuek hots batzuek egun egiten duten ahoskera ez da iraganekoena bezalakoa, baina badira beste hiztun batzuk, eman dezagun, hasperenak edo hots hasperenduak egun ere arras garbi ahoskatzen dituztenak. Zuberoan hiztunek hasperena ahoskatzean indarrezko *h*-a sumatu ohi da, baina ez zaigu iruditzen hasperenaren ahoskera gardenaren gaian Zuberoaren hurbiltasuna beti parametro baliagarria denik, izan ere, herrialde honen mugaren ondoko Nafarroa Behereko hiztun amikuztar ugarik ez baitu hasperena garbi ahoskatzen, edo ez zuberotarren indarrez bederen. Izan ditugun Arbotiko bi lekukok –biak gizonak– ez dute *h* nabarmen ahoskatzen eta alderantziz, ezagutu dugu Oragarreko auzo den Bartan –betiere Hazparne ondoan– *h*-ak Arbotiko gizonak baino argiago ahoskatzen dituen emazteki bat.

Honek lekukoaren generoaren gaira ekarri gaitu, gizon eta emaztekiatarra. Auzi honi ekiterakoan bi ardatz bederen gogoan eduki behar ditugu; alderdi batetik hizkuntzaren transmisioari dagokiona, izan ere, egoki ahoskatzea, hizkuntzaz arreta ukaitea, haurra xuxen mintzaraztea, aski jardun femeninoa da, haurraren heziketa ohiko gizartean amaren bizkar gelditu ohi den aldetik. Bigarren ardatza ahoskatzen diren hots eta formen gizarte onespenera genuke eta arlo honetan ere, emaztekoa arretatsuago dela dirudi, mendebleko kulturetan bederen jaramon gehiago egiten dio hizkuntza-formen oharmenari eta gizarte-balioari.

Amikuze eskualdeko euskal lekukoekin hondarreko hamar urteotan gertatu zaiguna segurik aipa genezake: gogoan dugula, emazteki guzti-guztiek ahoskatze arras gardena ukan dute, baina gizonen kasuan ez da berdin gertatu; gardentasunagatik gogoangarriak izan dira Mehaine, Labetze, Larribarre, Sorhapürü, Sarrikotapea, Lohitzüne edo Oihergiko gizonak, baina transkribatzerakoan aski lan eman digute Oragarre, Behauze, Zokotze, Donapaleu, Zohota eta Berroetako gizonak.

Ahoskeraren gardentasunak hizkuntza batek ukan lezakeen maila jantziarekin eta arta edo txukuntasunezko tradizioarekin lotura zuzena du, hezkuntzarekin eta kulturarekin, erkidegoko kide gehienengana gizartetik

heldu den mintzatze-kulturarekin, nahiz norbanako batek ere eduki leza-keen mintzatzeari dagokion elitezko ezagutza edo jakituria. Ipar Euskal Herriaz dihardugunez, balio luke auzi honetan katixima aipatzea, errient-errientsek eskolan ez bezala, denboraz apezek euskaraz eginarazten baitzuten katixima Elizan. Honela, euskara katiximan landu zitekeen, apezaren ahotik entzundakoa euskara on eta zuzena zatekeen, elizgizonek irakurtzeko zaletasuna, ahala eta premia ukan ohi dutenez.

Ahoskera eredu ona, ^h*eskuara huna*, katiximan entzun dutela esan digute Arberoako Mehainen eta Amikuzeko Behauzen eta honek beste auzi batera garamatza: eskualde bateko ala besteko mintzoaren kalitatearenera. Mehaineko eta Behauzeko ene lekukoek maite zuten katiximako euskara, hori izan zen hein batez araturik ezagutu zuketan bakarra, eta Baionako apezpikutegitik etorri ohi ziren liburuetan mintzamolde hori ageri da, Lapurdiko euskararen kutsua duten liburuetan. Bestalde, duela ez aspaldi arte misionestak herririk herri ibiltzen ziren kristau fedea hedarazten eta sendotzen; dakigunez, eskualdean misioak egiten zituzten apez edo fraideak Hazparneko egoitzatik joaten ziren eta horixe da egun Amikuze alderdian euskaldunek gehien estimatzen duten euskal mintzoa, Hazparne alderdikoa; iduri luke mintzoen estimuaren gaian arrazoiek eta ondorioek elkar elikatzen dutela.

Nolanahi ere den, mintzoen estimuaren txanponaren binperra norberaren mintzoaz batek ukan lezakeen uste ezkorra da eta bi alderditarik bederen elika daiteke. Batetik baxenabartarrek Lapurdiko aldaeretakako duten joeratik, baina Frantziako Eskola Nazional ofizialetik ere bai. Errientez adierazirik nonbait, frantsesaren eta euskararen hitz-hurrenkera edo sintaxi-egitura alderatzean bata eta bestea usu aurkako norabidean abiatzen direnez, hori entzutearen entzutez beharbada, euskal hiztun batzuek diote euskaraz mintzatzean orga idien aitzinean kokatzen dutela. Honelako juzguez ez diote mesede handirik egiten euskarari, baina Amikuzeko Zohaztin honelako iritzia entzun dugu guk, euskara arras xuxen ematen duen emazteki batengandik, gainera; hizkuntza-segurtasunik eza eragiten ote dio honek emazteki honi? Zohaztiar honek eredu sendoak dakuski hala zuberotarra nola lapurtarra, baina Nafarroa Behere-Amikuzekoa ez. *EHHA* izeneko euskal atlasean Bardezko lekukoak ere antzera dio, irudia errepikatzen da,

dioenez orga idien aitzinean ezartzen dute bardoztarrek euskaraz mintzatzean; frantses errient zenbaiten eraginez sarrarazia ote da iritzi ezkor hau?

Nafarroa Beherean ez da ezezaguna norberaren mintzoaz halako arrangura izatea; hona Euskaltzaindiko buru izan genuen Jean Haritxelhar zenak zioena: Baigorriko euskarak elkarrizketari itzuli gogorra ematen diola, Nafarroa Beherean Lapurdin baino hitz gutiagorekin mintzatu ohi dela, esaldia laburrago dela, idorrago; lapurterazkoa, berriz, zabalago dela (1963, 69). Baigorriko euskararen usu idordura sumatzen zuen, urduritasuna eta lastertasuna, laburduretarako joera; idazkeratik urruntzen ari den mintzoa zekusan Baigorrikoa (73). Ez da atzo goizekoa iritzi ezkor hau; duela mende bete Jean Etxepare Bidegorri mirikuak 1915ean Lapurdi eta Nafarroa Beherea aurkaritzan ezarri zituen, hain segur orduan ere iritzi hau nagusi zebilelako: Etxeparek zioskun *Sarako lapurtarraren handitik, nola Garaziko baxenabartarraren xehetik* ematen zuela Jean Hiriart-Urruti idazle hazpandarrak; ikus Charritton (1984, 172).

Azkueren hiztegiko *gohaindu* sarreran ez du bere mintzoaz iritzi onik ageri oztibartar batek: *Ostibarreko mintzo basa hunek asia, gohaindia, okhaztatia bitzauteke ingoitik* (1905). Ezagutu ditugu Oztibarren Baigorriko euskara maite duten jendeak, edota Lapurdikoa bestela. Iduria da iritzia Amikuzen ere: oro har ezkorra da, euskara ona Lapurdiko Hazparden egiten dela entzun ohi dugu. Amikuzeko Sarrikotako hiztun batek Garazin dakusa euskara ona ere, uste baitu ez dutela Amikuzen bezainbat erdal hitz baliatzen euskaraz mintzatzean.

Amikuzen entzun dugu ere Lapurdiko mugako Bardoze herrian mintzatzean euskaldunek bearnesa eta euskara nahasten dituztela eta Kristina Encinarrek ere iritzi hori bera entzun du Mugerren eta Beskoitzen Bardozeko euskaraz (2008, 390). Bardozeko euskarari buruzko iritzi ezkorra *EHHA*-n ageri da ere, lekuko herritar baten ahoan; egiten duten euskara nahasiagatik *xarneguak* eta *baxtartak* direla irizten diote bardoztarrek: *ü* ez dela bertako hotsa esateraino, nahiz Bardozen artean euskal hitzetan *ü* ahoskatu ohi den. Aita-amak bardoztarrak dituen lekuko bardoztar batek ere euskara ederra Hazparden eta Uztaritzen dakusa; Bardozen ez (Encinar 2008, 389).

5. Hasperena

Aipagarria da *h* edo hasperenaren gaia; aldea dago 80ko hamarkadan Ipar Euskal Herrian entzuten nuen eta orain entzuten dudan hasperenaren indarraren artean; belarriz bederen, Nafarroa Behereko hiztunetan agerianago zitzaidan egun baino hasperena orduan. Oroitz Jauregik eta Irantzuko Epeldek Ipar Euskal Herrian hasperena jasaten ari den galeraz idatzi dute (2013); Ilse Lehiste (1964) eta Bernard Hurch (1988) ikertzaileen lanak aipatuz diote, hasperenik ez egitea naturalago dela egitea baino eta «aspirazioa ekoizteko, ez ekoizteko baino ahalegin artikulatorio handiagoa behar» dela (257).

Mitxelenari entzuten genion Ipar Euskal Herriko euskara aztertzeke egokienak etxeokak berekoak direla, Hegoaldekoek entzuten ez ditugun *ñabardura* batzuk ipartarrek sumatzen dituztelako. Arestian adierazi dut erdizka baizik entzuten ez ditudan *h*-ak iganago kokatu ohi ditudala hitzean etnotestu bat idaztean: esate batera, *^horgo* dakart Labetzen. Baina usu gertatzen zait ez dakidala xuxen, entzuten dudana *h* ahula den ala deus entzuten ote dudan, ala iruditzen ote zaidan *h* ahula entzuten dudala zinez entzun gabe, sugestioz edo hitz horrek etimologiaz *h* duela jakite hutsagatik; horrelakoetan ez dut batere garbi izaten zinez entzuten dudana ala ez dudana.

Gertatu zait bestek Ziburuko arrantzale bati grabatu bandan *^hola* «hone-la» ahoskatzen duela iruditzea, nik entzutea eta gazte ziburutar batek hasieran ez entzutea; aldiz, ondotik berriz entzunik, hark ere *^hola* horretan *h* ahul bat entzutea. Ezagutu ditut honelako kasu gehiago ere, baina alderantziz. Esate batera, *EHHA* euskal atlasean Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola lankide giputzek entzuten ez zituzten herskari hasperendu batzuk transkribatzen zituen Xarles Videgain oztibartarrak Ipar Euskal Herriko zenbait emaitza antolatzen ari zenean. Alta, hau ez da Euskal Herriko gertakaria soilik, auzi orokorra da hizkuntza-atlasetan: transkribatzailea nor den, ezazugarri kritiko batzuen kasuan mapan aldaera bata ala bestea agertuko da, bandan grabatu dena hots bat eta bera izanik ere.

Videgainen doktoretza-tesi bikainean (1989) Ipar Euskal Herriko Oztibarreko mintzoa biltzen da etnotestu luzeetan, eta hasperena ukan lezake-

ten herskari guztiek dute hasperena transkripzioan: *h* guztiak ageri dira, eta beren lekuan, gainera. Beharbada Ipar Euskal Herriko tradizio idatzi edo jantzian *ph*, *th*, *kh* hasperenduak ahoskatzen diren eskualdeetan honela idazteko ohitura dago eta etnotestuak transkribatzerakoan ere honela egin zuen Videgain ikertzaileak, grabazioan hiztunak zinez ahoskatzen duena kasu guztietan banaka-banaka behin eta berriz entzuten hasi gabe. Eni segurik Oztibarren 2015ean ez zait gertatu hasperena ukan dezaketen herskari guztiek hasperena ukaite hori: adibide anitzetan edo ahul entzuten dut edo ez dut entzuten; berdin gertatuko ote litzaioke Ipar Euskal Herriko belarri bati? Ez jakin.

Hainbat kasutan arazoak ukan ditut *ph*, *th*, *kh* herskari hasperenduak gardentasunez entzuteko, ez baitut argi entzuten hitzeko kontsonante horretan hasperenik baden ala ez den; adibide batzuetan arras argi entzuten ditut herskari hasperenduak, baina beste batzuetan ez dut inolaz ere hasperen arrastorik entzuten, eta beste kasu batzuetan zalantza dut entzuten dudana herskari arrunta ala hein batez hasperendua den. Ene belarrian hasperen kutsua ukan dezaketenetan *p^h*, *t^h*, *k^h* idatzi dut eta gardenak direnetan *ph*, *th*, *kh*; halaz ere, ez dut guztiz garbi *p^h*, *t^h*, *k^h* idatzi ditudan batzuk zinez hasperenduak ote diren, eta ez dakit, bestalde, nik *p*, *t*, *k* idatzi ditudan batzuetan hasperen arrastorik egon ote litekeen ere; printzipioz ez dut uste, bestela *p^h*, *t^h*, *k^h* emanen baintuzke horiek ere etnotestuan, baina ez naiz neure buruaz guztiz fidatzen.

Egiazki, ikertzailearen entzumenaren bidez lekukoak hitza xuxen nola ahoskatu duen jakitea ez da beti aise izaten. Amikuzen hitz zaila gertatu zait benetan *gehio*, usu *geiho* ahoskera entzuten baitu ene belarriak eta adibide batzuetan ez dakit entzuten dudana *gehio* ala *geiho* den, noiz nola, bata nahiz bestea entzuten dut, eta grabagailuan dagoen adibidea bat eta bera da, tresnari behin eta berriz errepikarazten diodana, baina bata ala bestea den ziurtatzeko eta lasaiago gelditzeko, guztizko bermerik ukan ezinik gelditzen naiz; gizakion belarriak ere mugak ditu.

Badira gero hasperen batzuk beren lekutik zertxobait higitu edo direla diruditenak:

etzit erraiten haal horren gañian deu[ʒ]e (Martxueta)

Baita inondik inora itxaroten ez ditugun hasperenak ere: *bortizkeriahik* (Arrueta); alta, kasu hau ez da *ehi* «eria, hatza» bezalakoa, non *eri* → *erhi* → *ehi* gertatu baita; Amorotzen *behaz* «beraz» ageri zaigu.

Beste adibide batzuetan kontsonante igurzkari baten ordain ageri zaigu hasperena:

ehasten «ebasten» *al tzutela* (Oragarre)

ehintzün juten «ez gintuzun joaten» (Gabadi), non *ezg* → *eg* → *eh* gertatu baita

gazte hat «bat» *balimada bürü etxen* (Martxueta)

ta geo, to, etxea, etxea, ihil «ibil», *etxe zaharra b'igindien han, bena etxea in lehenik hor* (Zohota)

ihandia «igandea» (Gamue)

Bestalde, ez da aise *Oharre* «Oragarre» (Oragarre) adibidean bilakabidea xuxen nola izan den jakitea.

Nabarmena da ere hitz elkarketak hasperena eragiten duela, Ø → *h* gerta daitekeela; hurranen adibidean diptongoa eta bokala elkartzen diren guanean, hiatoan sortu da: *gauherdi* (Arrueta, Arboti); beste honetan hiatus arruntean: *lohaldia* (Gabadi).

Lekukoekin lan egiteak erakusten du ahoskeran franko eratako bihurrikeriak gerta daitezkeela; esate batera, Zuberoa-Amikuzeetan nagusi den *hoge* aldaera zaharragoaren ondoan (cf. Lakarra 2011, 108), (*h*)*ogoi* egiten da ondoko ibar Arberoan, Nafarroa Behere eta Lapurdi gehienez, baina Amikuze eta Arberoako mugari hurbil den Ostankoa herrian, halako batean, hiztunak *o ho^eei* ahoskatu zuena *hogoi* identifikatzen nuen nik grabazioa entzutean, baina ez nengoen ziur; grabazio bereko beste adibide batean hiztunak *hoge* eman zuen garbi eta jabetu ahal izan nintzen Amikuze-ko gainerateko herrietan bezala, Ostankoa ere *hoge* aldaera gordetzaila ibiltzen dela, baina lehen adibidean ez nuen batere garden entzuten eta *hogoi* izan zitekeela iruditzen zitzaidan, hori entzun uste zuen ene belarriak. Amikuze-ko mugako herria da Ostankoa, Landibarreri begira bizi dena – nahiz badakigun Landibarren *hoge* ematen dutela, baina, esate batera, Iri-

sarrin eta Armendaritzen (*h*)*ogoi*-. Dialektologiaren aldetik garrantzizkoa da eskualde horretan ostankoarrek *hogoi* ala *hoge*i egiten duten jakitea.

6. Sudurkaritasuna bokaletan

6.1. Aspaldian ezaguna da euskarazko bokaletan sudurkaritasuna ager daitekeela. Jauregik eta Epeldek fonetikaren azterketaren bitartez dioskute-nez «bokal sudurkariak ekoiztea bokal ahokariak ekoiztea baino konplexuagoa da fisikoki» (2011, 31).

Mitxelenak berak *FHV*-n aurkezten du gaia: Bizkaian XVI. mendean honelako bokalak ahoskatzen zirelako berri esplizituak ditugula dio eta Erronkari eta Zuberoako hitzetan balio fonologikoa duten bokal eta dipton-go sudurkari garaikideen berri dakar. Jean-Baptiste Coyosek Arbailako bokal sudurkarien eta ez sudurkarien pare minimo bakan batzuk dakartza (1999, 64).

Badakigu bokal sudurkarien arteko egungo *h*-ak iraganeko bokalarteko *n* arrunta ordezkatzeko duela. Hualdek argitu zuenez, gainera, bokal sudurkari bitarteko xiberotarren *h* kontsonante hori ere sudurkaria da (1993a). Txomin Peillenek dioenez, Zuberoako Pettarra eskualdean ozenki ahoskatzen dira bokal sudurkariok (1992, 254).

Hizkuntzalarien ustez ez dirudi halabeharra denik egungo egunak artean bokal sudurkariak Zuberoan iraun izana; hona Egurtzegiren hitzak (2014: 174):

Contrastively nasalized vowels have been developed by means of language-internal processes in Basque. Nevertheless, borrowings from gascon have greatly increased the number of words with contrastively nasalized vowels in Zuberoan. Contact between Zuberoan and Gascon has probably helped preserve the distinction until recent times. While most Basque dialects lost contrastive vowel nasalization around 4-5 centuries ago, some Zuberoan varieties have maintained it until today.

Erronkarin ere baliatzen ziren bokal sudurkariok, baina hasperenik gabe; alta, Zaraitzun ez da honelako bokalik ageri, Mitxelenak ez zituen entzun

(1967, 165) eta nik ere laurogeiko hamarkadan ez nuen Zaraitzun honelako bokalik entzun. Erronkari ibarreko Izaban Mitxelenak *kño* «usain txarra», *zĩatu* «koipe gatzatua» eta *zĩ* «ezkurra» bildu zituen eta Uztarrozen *gāzta* edo *ũr* «urra» (1953). Kandido Izagirrek ale hauek dakartza Uztarrozen (ez dugu grafia aldatu): *ánra* «harra» (1959, 297) eta *únra* «urra» (294); baita *áinzpa-reki* «ahizparekin» (1961, 399), *ánkarrak* «ahakarrak, haserreak» (398), *gánzta* (394) eta *zunr* «zuhurra, zekena» (397) ere. Bonaparteren 1869ko *Le verbe basque en tableaux* iturrian oinarriturik, Mitxelenak diosku ipar-mendebaleko Zuberoako Domintxaine eta Ithorrotze-Olhaibin ere *mēhē* edo *mīhī* hitzetan bokal hauek baliatzen direla (1977, 48), baina XXI. mendearen hasieran Amikuzen ibili ondotik, adieraz dezaket amikuztarrek ere bokal sudurkariak ahoskatzen dituztela, Zuberoan bezain nabarmen entzuten ez badira ere. Zuberoa eta Amikuzeko bokal sudurkarien gaia aurkeztu aitzinetik, ordea, beste ikergai berri bati heldu nahi diot.

6.2. Gaia akustikaren alderditik aztertutik, frantsesezko mailegu berrietan gertatzen ari dena aurkeztera jo dute hondarreko aldian gure arteko ikertzaile batzuek; Jauregik eta Epeldek Lapurdiko Senpereko euskal adibideak dakartzate (2011); ikus, bestalde, Oñederra, Jauregi & Epelde ere (2014, 86-87). Frantsesetik bokal sudurkari mailegatuak sartzen ari dira Ipar Euskal Herriko euskarara, baina honela ahoskatzen duten hiztunak ez dira nagusiki frantsesa eskolan ikasi dutenak, sortzez hiztun elebidunak dira, Ipar Euskal Herriko hiztun berri edo gazteak, beharbada euskara sei urterekin ikasi dutenak eta frantsesa etxetik zekitenak: frantsesezko bokal sudurkariak sortzez egiten dakiten hiztunak dira; eman dezagun, ongi dakite *jād-arma* egiten.

Euskaraz tradiziokoak ez diren eta frantsesezko maileguen bidez euskarara sartzen ari diren bokal sudurkari guti entzun dut nik Amikuzeko adinetako jendeen ahotik. Maileguetan *fin* aipa daiteke: *astiaïn fīan* «astearen hondarrean» eman du Arberatzeko lekuko batek, bokal sudurkaria eginez eta *n* inplosiborik gabe; zioztanez, frantsesa berandu eta gaizki ikasi zuen. Hartara, adinetako lekukoek ez dituzte frantses mailegu berriak beti euskal era zaharrean ahoskatzen. Labetzen euskal elkarrizketan *zāntima* hitzean lehen bokala sudurkari ahoskatzen du lekukoak, xuxen esanik *a* eta *e* arteko bokala, «æ» sudurkaria; silabako *n* inplosiboa ahoskatu zuen, bai, baina

mailegu honetan argi ageri da frantses ahoskera eta hiztuna adinetakoa zen, euskaraz bikain egiten zuena. Lekuko berarena da *āⁿvelopetan* hitz teknikoa ere, euskaraz emana. Berebat, Arüeko adinetako lekuko bati [ʒ] *ēⁿdarma* eta *iēⁿdarmekin* adibideak entzuten dizkiot: bokala sudurkaria da, nahiz ondotik baden kontsonante kutsu zerbait ere. Euskaraz diharduela Martxueta lekukoak garbiki *brætoō* «bretoia» ahoskatzen du maileguzko adjektiboa, hitz bukaeran *-n*-rik ez delarik. Honelako kasuak bakan dira ezagutu ditudan Amikuzeko adinetako hiztunen artean, baina entzun ditut ale batzuk.

Esate batera, Oragarreko auzo Bartan, Ostankoan, Donapaleun, Amorozen, Amendüzen, Domintxainen edo Oihergin *bō* entzun dut Ipar Euskal Herriko ohiko *bon* «ongi» hitza; Martxueta, Gamuen eta Zohotan, berriz, *bōn*. Arestiko bi aldaerak bata bestetik edo bilakabide bata eta bestea bereiztea ez da aise, ez baikara gertakari absolutu batez ari, mailaz mailako izaera duen zerbaitez baizik. Barta auzoko hiztun horrek, ordea, *jandarmak* ahoskatu du garden, kontsonante sudurkaria eginez eta Larribarren ere *jandarmak* ageri zaigu; Olhaibin, berriz, *jandarmendako*. Ez dut gaia sakon landu, eta ezagutza eta tresneria beharko lirateke azterketa xuxen egiteko, baina nik belarriz adinetako euskaldunen artean, eman dezagun, *anprunta* «sos mailegua» entzun ohi dut beti: nolana ere den, *n* kontsonante inplosiboa nabarmen ahoskatu.

6.3. Bokalarreko jatorrizko *n* → *h* bilakabidea ez da aski euskarazko bokal sudurkari oro azaltzeko. Egurtzegik berak duela denbora guti analogiaren azalpena aurkeztu du: proposatzen duenez, *gihaur* eta *zihaur* izenordain hanpatuetako hasperen sudurkariaren kutsatzailea paradigmako lehen pertsona *nihaur* litzateke (2014: 83). Paradigmaren argudioak kasu batzuk azal ditzake, baina beste hitz batzuetako bokaletan ere sudurkaritasuna entzuten da; esate batera, Zuberoako ipar-mendebaleko Sarrikotapean *hēben* «hemen» eta *hēēxa* «herexa, arrastoa» hitzetan, *h* ondoko bokalean kutsu sudurkaria entzuten da; analogiaz ote da hasperendua?

Bokalarreko *n*-aren bilakaeraz eta analogiaren azalpenaz landa, hirugarren eragile bat egon daiteke ere. Ezaguna da James A. Matisoff-en 1975eko «Rhinoglottophilia: the mysterious connection between nasality and glottality» ikerlana. Ivan Igartuak ere sudurkaritasunaren eta laringalizazioa-

ren arteko hartu-eman hertsiaz eta gertakariak hainbat hizkuntzatan duen paralelo tipologikoaz idatzi du (2008, 177). Dioenez, delako *rhinoglottophilia* honen kariaz, *h* igurzkari glotala edo ? herskari glotala duten sekuentzia fonetikoek ahoskera sudurkarien agerpena eragin dezakete: esate batera, Thaiandiako thai hizkuntzan, *h-* ondotik bokal apalen sudurkaritzea gertatzen da: [ha:] «bost» > [hã:]. Nepalgo ekialdeko hayu hizkuntza tibeto-birmaniarrean, [h-] duten silabetan halako sudurkaritze llabur baina nabarmena ageri da (177-8). Matisoff, John J. Ohala eta Manjari Ohala hizkuntzalarien oharra aipatzen ditu Igartuak eta azalpen fonetikoak dakartza gertakariak (181):

El hecho de que la articulación de los sonidos glotales no requiera elevación del velo del paladar (a diferencia de la mayor parte de las consonantes y en contraste con las nasales, que exigen su descenso) posibilita que parte del aire pase a través de la cavidad nasal.

Amikuzeko grabazioen emaitzak behin eta berriz entzutean, hitz batzuetan bederen halako lotura sumatu uste dut nik segurik hitz hasierako hasperenaren eta ondoko bokalen sudurkaritasun kutsuaren artean: hitz hasierako *h-* + *v* segmentuetan halako sudurkaritze ahula sumatzen dut Amikuzen bokal ugaritan, nahiz hitz guztietan ez den berdin gertatzen: belarriz bederen, hitz batzuetan besteetan baino nabarmenago sentitzen dut kutsu sudurkari hori.

6.4. *FHV* lan ezagunean Zuberoako bokal sudurkariak ezegonkortzat jo zituen Mitxelenak, galbidean doan ezaugarri arkaikotzat (1977, 48). Ezegonkortasun hori zehazki zertan den ulertu nahirik, batek pentsa lezake aldakortasuna beharbada hiztunetik hiztunera dagoela bokal sudurkarien erabileran, edo aldakortasuna Zuberoaren barreneko geografiaren arabera dela. Adibidetzat Urdiñarben 2009an entzuna hartuz gero, Mitxelenak bokal «arkaiko» hauen ezegonkortasunaz dioena hobeki uler liteke (1977, 48), bai bederen Barkoxen, Ospitalepean eta Eskiulan bi belaunaldi eta erdi lehenago Larrasketek 1939an bildu datuekin alderatuz gero, hiru herri horietan eta Urdiñarben entzundakoaren artean ez baitago guztizko berdintasunik. Esate batera, Larrasketen 1939ko lanean bildu hitzetan hurrenaren bokal sudurkariak dira:

âhârdi, âhâte, âhâtz, âhîzpa, ardû, bêhîn, gîhâû, hâmâr, hân, hândi, hêbên, ihârdets, ihârrâus, ihâu, ihîtz, ihû ê, lêhên, mâhâñ, mâhâts, mêhê, mîhîse, nâhâs, nâhî, ûhûe, xâhâ, xêhê...

Aldiz, 1939ko lan horretan bederen beste hitz hauen bokaletan ez dakar sudurkaritasun ikurrik:

behá, béhar, behatz, behéz, béhi, bíhi, bihotz, bóhor «behorra», *ého, khámbára* «gela», *léher, ohártze, óhe, xáhar & záhar...*

Urdiñarbeko hiztun bati entzun dizkiodan hitz bokal sudurkaridunak, Larrasketek Barkoxeko, Ospitalepeko eta Eskiulako hitzetan 1939ko hiztegian dakartzanak berak dira:

âhîzpa, bêhîn, hân, hândi, hêben, ihîztatzen «ihinztatzen, ureztatzen», *khânbean, lêhênik, hâmar, mañhîetan* «bainuetan», *mîhîsik* «mihiseak, maindireak», *nâhî, sa[ž]û* «sasoina», *xâhâtzea, zihâun* «zuhaure, zeure»...

Urdiñarbeko hiztun adinetako horri entzun dizkiodan hitz bokal sudurkaridunak dira hurren hauek ere, baina Larrasketek bokal sudurkaririk gabe dakartza eleok 1939ko hiztegian; parentesi artean dator hiztegiko haren emaitza:

âhâl (âhal), *behârrik* (béhar), *ehâitea* «hiltzera» (eháite), *ohâpin* «ohapean» (ohápe), *oihâlen* (óyhal), *segazahîa* (záhi), *zâhâr* (záhar)

Ozen ondotik ere bokal sudurkaria entzuten dut Urdiñarbeko lekukoa-rengandik: *alhábák* (alhába), *errhâtzaekilan*.

Larrasketen 1939ko hiztegiko hitzek bi kategoria dakartzate bokaletan: sudurkariak eta ahokariak, sudurkaritasuna baduten eta ez duten hitzak. Datuen arabera balirudike ez zuela bitarteko egoerarik sentitu, ez zuela sudurkaritasun ahuleko bokalik entzun, auzia 0 ala 100 artekoa balitz bezala, bitarteko egoerarik gabe. Nik, aldiz, Urdiñarbeko hiztunaren beste adibide bakan batzuetan ez dut argi *h* ondoko bokalean entzuten dudana *h*-aren hotsaren kutsu edo eragina den, ala *h* ondoko bokal horretan entzuten dena halako sudurkaritzea ote den. Belarriz zail da bereizten, gainera, izan ere, hitz baten entzunaldi batean sudurkaritasun kutsua entzuten da, baina adibide beraren hurren entzunaldian ez da hain garden sentitzen. Zalantza

dudan hurranen hitzak ere bokal sudurkaririk gabe dakartza Larrasketek (1939), baina *h-* + bokala sekuentzian kutsu sudurkaria entzuten dut Ur-diñarben hala *h-*an nola ondoko bokalean:

hāa «hara» (háa), *hālxax* (haláxe), *hāsi* (hási), *hāxekan* «belar multzo bila» (háxe), *hērrilat* (hérril), *hīlik* (hil) & *hīlak*, *hīu* «hiru» (hiu), *hūñez* «oinez» (húin) –aintzat har bedi ondokoa ere kontsonante sudurkaria dela–

6.5. Euskararen transmisioa etxean bildu zuten adinetako euskaldunen mintzoa biltzen eta aztertzen dut eta oro har iduri luke hauen artean Zuberoan bokalen sudurkaritzea ez dela galdu; heldu eta gazte zuberotarren euskal jardunaz ez dut daturik. Alta, Zuberoa ondoko Amikuze Nafarroa Behereko ibarrean gauzak bestela dira; hau adieraztean ez naiz gazte eta helduen arteko bereizketaz ari. Amikuzen hiztun zaharren artean ere anitzek ez dituzte euskal hitzetako bokalak sudurkari ahoskatzen eta iduri luke ezaugarriaren galera lehendik abiatu delako. Aldiz, Zuberoan, euskaraz ongi egiten duten ber, adinetako jendeek euskal bokal sudurkariak ahoskatzen dituzte: Pettarreko Ündüreine edo Ur-diñarbeko euskaldun zaharrekin egotean honela entzun dut.

Amikuzen bokal sudurkari oro *h* ondoan kokatzen da, lehen edo bigarren silaban; ez da Zuberoako *ardū* «ardoa», *hazkū* «azkona», *kharrū* «izotza» erako adibiderik entzuten, ezta *arrathū*, *arraxū*, *sasū* «sasoia» erakorik edo *kamiū* «kamioia», *lehū* «lehoia», *xabū* «xaboia» berriagoen erakorik ere: arestiko adibide guztiak *u* sudurkari azentudunak dira Zuberoan. Adierazi nahi dena da, Amikuzen ez dela entzuten bokal sudurkaririk ondoan *h* ez duenik; bistan dena, *h* hori ere sudurkaria da; horra etsenplu sorta bat:¹

āhāl (Bith, Ost, Mar, Zoha, Arbe) –alta, Zohaztin eta Arbotin *ahāl* entzun uste izan dut; Ostankoan *āhālex* uste dut entzuten dudala– & *in āhāla* (Sor); *āhāge* (Amo); Ilharren ere *ahalge* entzutean susmoa

¹ Hona laburduren berri: Amendüze (Ame), Amorotze (Amo), Arberatze (Arbe), Arboti (Arbo), Arrueta (Arrü), Barta-Oragarre (Barta), Behauze (Behau), Bithiriña (Bith), Donapaleu (Donap), Gabadi (Gab), Gamue (Gam), Ilharre (Ilh), Labetze (Lab), Laphizketa (Laph), Martxueta (Mar), Oragarre (Ora), Ostankoa (Ost), Sorhapürü (Sor), Uhartehiri (Uha), Zohazti (Zoha), Zohota (Zoho).

dut bokal horietan badela sudurkaritasuna, baina ez nago ziur; *āhārdi* (Ora) & *āhārdiak* (Zoho); *āhārran* «eztabaidan, haserrean» (Ame, Zoho); *āhāte* (Ora, Amo, Behau, Ilh, Gab) & *āhāteak* (Ost) & *āhātiak* (Arbe); *āhāzten* (Ora, Arbe) & *āhātziak* (Donap); *āhāzpek* (Mar); *āh[ȳ]r* «esku ahurra» (Ame); *aīhēn* (Lab)

bēhār (Lab, Ame, Arbe, Sor) & *bēhārra* (Zoho) & *behār* (Lab, Ame) & *bihār* (Gam); *bēhātzen* (Mar, Arbe) & *bēhātuz* (Bith); *bēhī* (Mar, Arbe, Sor) & *bēhīain* (Gam) & *bēhīekin* (Zoho, Arbe) & *bēhīendako* (Donap); *bēhīn* (Donap, Arbe) & *behīn* (Ame); *bēhōr* (Arbe) & *bēhōrreki* (Mar); *belhāun* (Donap); *berrēh[ȳ]n* (Zoho); *bīhī* (Mar) & *bīhīa* (Arbe) & *bīhīain* (Lab)

ehāiten «ehotzen» (Arbe); *ēh[ȳ]n* «100» (Ame)

gehāu (Lab), *geihēna* (Bith)

hēskualdunak (Mar); *hōgei* (Zoho) & *hōei* (Donap); *hōla* (Ame, Zoho) –sakonean *honela* izanik–

ihīzin «ehizan» (Lab, Ilh, Donap, Arbo) –baina Donapaleun entzun dut lekuko berarengandik *ihīzin* ere– & *ihīzen* (Zoho) –baita *ihīzen* ere Zohotan– & *ihīzirat* (Laph) & *ihīztari* (Lab) & *ihīzlari* (Zoho, Laph)

lēhēn (Bith, Mar, Ame) & *lēhēnik* (Zoho, Sor) & *lēhēnao* (Lab) & *lēhēnau* (Zoho) & *lēhēno* (Arbe) & *lēhēneko* (Donap) & *lehēn* (Gam); *lehērtzen* (Arbe)

māhāirat (Sor) & *māhāñak* (Gam) & *māhītrak* «mahaintarak» (Amo); *mahātsa* (Arbe) & *māhasti* (Behau) & *māhastia* (Behau) –honelaxe entzuten ditut–; *mēhē* (Lab); *mīhīseak* (Uha)

nāhās (Gam) & *nāhāsten* (Arbe); *nāhī* (Zoho, Arbe) & *nāhīo* (Mar) & *nahī* (Donap, Ame) / *normahī* (Donap); *nēhōr* (Arbe) & *nīhūr e* (Ora) & *nīhūri* (Ame) & *nihūr e* (Amo, Ame) & *nihūekin* (Ame)

ohētik (Lab)

sēhī (Bith, Mar)

ūhāl (Sor); *ūhūre* «ohorea» (Ame) & *ūhūria* (Gam) –honelaxe entzuten dudala uste dut, baina sudurkari gabeko *uhuria* aldaera ere

entzun dut Gamuen; aldiz, Zuberoa mugako Sarrikotapean sudurkari gardena da: *denboan de[ž]ũhũe* «desohore» *handia*–

xãhãrren (Arbe); *xãhãtũ* (Lab) & *xãhãtze* (Uha) & *xãhãtzen* (Bith)
–Gamuen *xaatzeko* entzun dut, kutsu sudurkaririk gabe–; *xẽhãtu* (Ost) & *xẽhẽkatiũk* (Ame) & *egũr xẽhã sũiaen phizteko* (Zoha) & *xẽhãk* (Dom)

zãhãr (Lab) & *zãhãrrek* (Zoho) & *zahãrraua* (Ame)

Beste sekuentzia batzuetan –ene entzumenaren arabera bederen– bokalen sudurkaritasun kutsua entzuten da, baina ez dirudi aspaldiko bokalarteko *n* haren ondorioa denik: *bẽhãla* (Lab), *behũa* «beroa» (Ame), *bẽhẽxte* (Ame), *ehõtuik* «eroturik» (Ame) adibideetan *vr̥v* → *vr̥hv* → *vhv* bilakabidea dagoela dirudi.

Izenordain hanpatuetan ere bokal sudurkariak entzuten dira:

nĩhãu «nihaur, neroni» (Arbe) & *nĩhãur* (Zoho) –baita *nihau* ere (Zoho)– & *nĩhãuk* (Mar, Zoho) & *nĩhau* (Donap) / *gũhãuk* (Donap) & *gũhãuren* (Arbe)

Hurranen adibideetan ere, ene belarriaren arabera bokal sudurkariak izan litezkeenak ez dira bokalarteko *n* baten bilakabidearen emaitza, hitz hasierako *h*- etimologikoaren ondoan daude: halako *rhinoglottophilia*-ren adibideak izan ote litezke? Azterketa fonetiko xeheen bidezko deskribapena beharko litzateke:

bẽhãtza (Bith)

hãgan (Donap), *hãin* «haren» (Donap, Zoho), *hãinbeste* (Ame), *hãk* «hark» (Donap, Ame), *hãmabi* (Donap), *hãmar* (Donap, Ame, Zoho), *hãn* (Donap, Ame, Zoho), *hãrgingoan* (Donap), *hãri* erakusle datiboa (Ame), *hãrtzen* (Ame), *hãsi* (Ame) & *hãste* (Zoho), *hãtzeman* (Lab), *hãu* (Donap, Zoho), *hãurrak* (Zoho), *hãxeka* (Donap), *hãzitakua* (Mar), *hẽa* «ea» (Ame), *hẽek* «haiek» (Ame, Zoho) & *hẽk* (Donap, Mar) & *hẽẽtan* «haietan» (Mar), *hẽldũ* (Ame, Zoho), *hẽmen* (Lab) & *hẽn* «hemen» (Donap, Ame), *hẽrri* (Ame, Zoho), *hĩgatzen* (Ame), *hĩl* (Ame), *hĩrũerren* (Ame), *hõin* «hain» (Donap), *hõri* (Zoho) & *hõi* (Donap), *hõrrekin* (Ame), *hõtza* (Donap)

Hondarreko urteotan Amikuzeko ahoskera entzuten jardun dudanean, irudipena dut (\tilde{v}) \tilde{h}) \tilde{v}) eredu edo sekuentzia nagusi dela. Iruditzen zait (\tilde{v}) \tilde{h}) \tilde{v}) katea fonikoaren adibide gehiago entzuten ditudala (\tilde{v}) \tilde{h}) \tilde{v}) ereduarenak baino, alegia, ondoan \tilde{h}) duten bi bokaletarik hasperendua bakarra denean, eskuinekoa izan ohi dela kasu gehiagotan ezkerrekoa baino. Jakina, hau ene belarriaren irudipen inpresionista da, ez da tresna objektiboek neurtu dutena.

Euskal hitzetan beste egoera berezi batzuetan ere ageri da bokal sudurkaria Amikuzen, baina honelako adibide bereziak arras bakan entzun ditut:

uai kanþuan tzi behiekĩ (Arbe)

esniaikĩ (Arbe)

edo Arbaatzen duk, edo Domixĩ, ta uai Domixĩtentik heldũ zakiuk hunat (Zoho)

Itxaron litekeenez, Donapaleuko kantonamenduko Zuberoako herrietan ere bokal sudurkariaren adibideak agertu dira euskarazko hitzetan:

āhātiak, ihĩzłari, xēhēkatzen (Berroeta)

āhāl, āhārra, āhātzi, āhĩzpa, behār, bēhĩak, bēhĩn, hān, hāxot, ihĩzen, lēhēno, māhāñen, nihāundako, nihũ e «inor ere», oihāl, oihān, sēhĩaiki, xāhātũ & xāhātzen, zāhār, zernahĩ (Olhaibi)

Iruditu zait Olhaibin *mĩšen txiũtzeko* entzuten dudala, baina bi *i* horien sudurkaritasunaz ene zalantza dut; bego honela.

Zuberoan barnago sartuz bezala bokal sudurkariaren agerpena areagotuz doa:²

āhāl (Oih), aharratzen (Oih), āhātzi (Oih), bēhār (Sarkp, Pag), bēhēiti (Pag), bēhēx «bereiz» (Pag), bēhĩ (Sarkp, Oih, Pag), bēhĩn (Sarkp), bēhōr (Pag) & bōhōr (Sarkp, Oih), belhāiko «belauniko» (Oih), bōhāme «ijittoa» (Pag), ēhāiten (Oih, Pag), eihēa «eihera, errota» (Sarkp), ihĩzłaiak (Pag), kamiũ (Oih), lēhēn (Sarkp, Oih, Pag), lēhēr (Oih), māhātsa (Pag), mēhēxi (Oih), nāhās (Sarkp, Oih, Pag),

² Hona laburduren berri: Oihergi (Oih), Pagola (Pag), Sarrikotapea (Sarkp).

nāhī (Oih, Pag), *nīhāuk* (Pag), *oihāl* (Pag), *ōihān* (Oih), *sa[ʒ]ū* (Pag),
txān «xehean» (Pag), *ūhūñ* «ohoina, ebaslea» (Pag), *xāhār* (Sarkp,
 Oih), *xā* (Oih), *zāhār* (Oih), *zīhāuk* «zuhaurek» (Pag), *zūren* (Oih)

Hurranen etsenplu Zuberoakoak, ordea, ez dira *h* artekoak, *h* ondokoak dira:

hāla (Pag), *hān* (Sarkp), *hāndi* (Sarkp), *hānitx* (Oih, Pag), *hāsi*
 (Pag), *hēben* «hemen» (Sarkp, Pag) & *hēn* (Sarkp) & *hēn* (Sarkp),
hēēxa «herexa, arrastoa» (Sarkp), *hū* «hiru» (Pag), *hūñez* (Oih, Pag)

7. Atal gehiago ahoskeraz

7.1. Ekialdeko euskalkiez dihardugunean eta bokalen arteko seigarren fonema *ū* aipatzen dugunean, Zuberoako adibideak eta bilakabideak herrialde horretan dituen kokagune-baldintzak datozkigu gogora, baina Amikuzen eta Lapurdi saihetseko Bardozen ere euskal hitzetan *ū* ibiltzen da; agerpen edo kokagune baldintzak desberdinak dira Zuberoakoekiko bi alderdi haue-tan; bestalde, Amikuzekoak eta Bardozekoak ere ez dira berdinak; cf. Lafon (1937, 1962). Bardozen «zalantzatia» da *ū*-ren agerpena; cf. Encinar (2008, 386-389); Amikuzeko *ū*-z ikus Camino (2016).

Gauza ezaguna da Amikuzeko herri batzuetan euskal hitzetan *ū* ahoska-tzen dela eta beste batzuetan ez dela egiten; esate batera, Oragarren, Amoro-tzen, Ostankoan, Bithiriñan edo Uhartehirin guk ez dugu entzun. Ezagu-tzen ez genuena da, *ū* egiten den eta egiten ez den herrien arteko geografia-mugaren inguruko herri bateko hiztun batek, kasu honetan leku-ko martxuetar batek, kokagune edo hitz berean aldi batzuetan *ū* egin deza-keela eta beste batzuetan *u* egin dezakeela, halako aldakortasun librea ba-lege bezala. Adibide sorta honetan garbi ageri da:

bakizu / *extukezū*
duun & *duula* / *dūūina*
emazu / *emazū*
gitzu / *gitzū*
gu / *gū*
hiru / *hirū*

bauzu / *bauzū* & *behauzū* / *baiūzū*
etzu «ez duzu, ez da» / *etzū*
gintzun / *gintzūn*
güe & *gure* / *gūe* & *gūre*
hamahiru / *bizpahirū*

nuzu / nüzü
tzu «dituzu, dira» / *tzü* *tzitzun* «zituzun, ziren» / *zitzün*
uzu / üzü / üzü / bauzü
zun «zuzun, zen» & *tzun / zün* & *tzün* *bazuⁿ* «bazuzun, bazen» / *bazün*
etzun «ez zuzun, ez zen» / *etzün*

Arestiko aldaerak elkarrizketa berean ahoskatu dituen lekuko martxuetarrak Gamuekoa du senarra, hau da, euskal hitzetan *ü* ahoskatzen den ondoko herri batekoa; senarrak *ü*-ak Amikuzen ohikoa den eran egiten ditu. Ene ustez, lekuko martxuetarrak fonema honetan fluktuazio hau agertzea ez dagokio Hegoaldeko ikertzailearen presentziari, haren senarra ere elkarrizketan baitzen eta biak txandaka mintzatu ziren, askatasun osoz eta goxoan, giro guztiz atseginean. Uste dut arrazoia geografikoa dela, lekuko martxuetarra *ü* egiten den eta ez den herrien arteko mugakoa izateari egotziko nioke nik fluktuazioaren azalpena.

Berebat, Zuberota ondoko Arbotiko gure lekuko bietarik batek usu ahoskatzen du *gu*, baina *gü* ere ematen du; aldiz, ondotik *r* duen *güre* egiten du grabazioan ageri den adibide orotan.

7.2. Geografia-espazioa dela eta, adieraz dezadan Oragarreko auzo Bartako lekukoak ez duela *ü* palatalik ahoskatzen, guztiak *u* egiten dituela; alta, Koldo Artolak *ü* batzuk dakartza Bartako adizki laguntzaile batzuetan, *u*-i sekuentzian: *zauküian* «zitzaiguan + zigan», *zauzküian* «zitzaizkiguan»; bestalde, *nintüian* & *nintiüian* «hark ni» «nindian» toka ere aipa daiteke. Badakigu Oragarreko auzo den gunen horretan gaskoiak agerpen handia duela: badira familia gaskoiak eta badira gaskoia dakiten euskaldunak ere. Akamarre, Bidaxune, Bardoze, Gixune herrien ondoan bizi dira bartarrak eta egungo egunak artean gaskoiaren presentzia handia izan da eskualdean. Bartarrek euskaraz *ü* fonema ez ahoskatzeko balizko bi arrazoi dakuskigu; lehena Oragarreko auzo hau berria izatea, bestela esan, bertako jende euskaldun nahiz gaskoiak bertan aspaldikoak ez izatea eta beraz, Amikuzen *ü*-k duen sarbide historiko-geografiko eta gizartezkoarekin lotura zuzenik ez ukaitea. Bigarrenik, Lapurdiko Hazparne Oragarreko auzo Bartatik hurbil egotea, hiri hori merkatugune, sos eta lan iturria izan den aldetik. Hazparne hiritik inguruko herrixketara hondarreko mendeetan hainbat hazpandar euskaldunek bizitzera jo dukete eta hain segur, ukan duke honek ere hiz-

kuntzaren aldetik ondorioa. Amikuze inguruko *ü* fonemari aurre egin dioke Hazparnek, hiri honetan euskal lexikoan ez baita *ü* ibiltzen. Aldiz, Koldo Artolak Bartan bildu adizkietako *ui* kateko *üi* palatalizazioa ez da morfonologiako bilakabide ezezaguna hitzaren bukaeran Hazparne hirian.

7.3. Larribarreko hiztun batek ama Zuberoako Arüekoa zuen eta aita bearnesa; Arüe *u* eta *ü* fonemak bereizten diren herria da eta alde horretatik ez da harritzeko haren semeak euskal hitzetan ere *ü* ahoskatzea edo *u* eta *ü* bereiztea. Koldo Artolaren arabera (in Irizar 2002, 22) Larribarren ez omen da *ü*-rik euskal hitzetan, baina dudan grabazioan lekuko honek ahoskatzen du eta haren adiskide larribartar batek ere bai. Ez dute *ü* egiten beste amikuztar batzuek bezainbat, hitz frankotan ez dute egiten. Ba ote da halako mekanismo bat haien gogoan, intuitiboki ala oharkabean batzuetan *ü* ahoskarazten diena eta beste batzuetan ez? Bada honelako zerbait, izan ere, elkarriketan lekuko bat erneago dagoen uneetan, *ü* gehiago ahoskatzen du. Ezagutu dugu larribartar bat adierazi diguna herrian ez dela *ü* egiten. Bestalde, ama larribartarraren alaba bithirindar adinekoak ere ezagutu ditugu, ez dutenak *ü* egiten, baina Bithiriñan ohikoa da fonema hau ez ahoskatzea.

7.4. Muga lektalen inguruneetan ahoskerak zenbateko garrantzia duen aise da ikusten, mugaren alde batean ala bestean gauden ahoskerak axola du, sistema bata ala bestea aktibatzen baita, nahiz honek ez duen esan nahi eskualde horietan elkarreteragina, nahasketa eta delako *interdialect* gertakaririk ageri ez denik. Arüe Nafarroa Behereko Amikuzeko eta Zuberoako euskararen muga-mugako herria da, alderdi bateko eta besteko ezaugarriak ageri dira arüetarren mintzoan. Arüeko lekukoa anaiarekin eta beste arüetar batekin etxean zegoela egin genuen harekin elkarriketa luzea, bi herriar horien aitzinean Arüeko bereko euskara aiseago eginen zuelakoan, *the observer's paradox* delakoa ahalaz saihestu nahirik: lekukoari etxera Arüez kanpoko ezezagun zenbait sartu zaio euskaraz mintzatze hutsera, eta egoera hori kudeatu behar du. Hurranen pasartean lekukoa eni mintzo zaidala ageri da, baina halako batean anaiak ere parte hartzen du elkarriketan eta honek eman aldaera bera ematen dit lekukoak ondotik eni, hain zuzen ere hasieran enekin aritzean eman ez bezalako: milisegundu batean *gau* → *gai* aldaketa egin du: [arto xuritzea] *etxe atetaik bestila, gü bezala g... gaur zü-*

kezün ta beste etxin beste gau atez eta hola [anaiak] *gai ooç* [eta enekin ari zen lekukoak, arrebak, baieztatuz jarraitzen du] *gai ooç...*

7.5. Zuberoako Pagola herrian polimorfismo fonikoaren adibidea ageri zaigu: Zuberoa, Oztibarre eta Amikuzeko muga-mugako herria da eta ahoskera bidialektala entzun daiteke pagolarrengandik; Arüe, Sarrikotapea eta Oihergi herrixketan ere gertakari iduriak ditugu. Hurranen adibidean Pagolako elkarrizketako atal bat dakargu; ageri denez, zuberotarren [ʒ] eta baxenabartarren [j] hotsak txandaka ageri dira:

bõ, bixtan dena, gü Xubealat [ʒ]un eta bethi atzamaiten tzeiküzien difeentzia, bethi, gü bethi, Xubealat [ʒ]un eta manexak güntützün, manexeat [ʒ]un eta xubeataarrak, ükhen dizüü bethi... mintza[ʒ]e lifeent pat, amiñi at bietan nãhãsteka, nãhãsteka, zeen eta Xubeatik [j]in düzü [ʒ]ente, [j]in düzü Oztibarretik e bai, han e eztizie *tout à fait* ber mintza[ʒ]ia, *voilà*, nãhãsteka amiñi bat, bai

Jakin nahi dugu pagolarrek Zuberoara jotzean ea beren mintzoa hangorak lerrarazten ote duten eta lekukoak ezetz diosku, herrian bezala mintzo zirela han ere:

ber gaiza, bai, ba, bai; ez, ez, bate, ez, ez, bate, ez, ez, ez, hartako zeiküzien erraiten «manexinak» edo hola; gio joaiten nüntzün berdin eta Donaplülát, xerbütü itea, kafe batzütaa, Donaplüeko bestetako edo merkhatü...ietako, ordian berriz han erraiten tzeitazien, bõ, ni Xubeatik heldü nintzala, ta bõ, enündüzün 'Xubeatik jiten, bena (...)

7.6. Hizkuntza erkidego bera bi estaturen administrazio esparru banatan bizitzeak desberdintasunak eta berrikuntzak eragin ditzake erkidego bakar horren mintzoan; eman dezagun, Ipar Katalunian eta Ipar Euskal Herrian hiztun gazteek dardarkari ubularra ahoskatzen dute katalanez eta euskaraz dihardutenean, baina dardarkari hori hobikaria da Hego Katalunian eta Hego Euskal Herrian. Hau da *grosso modo* egoera, baina gertakari bakoitzaren barrenean badira mailak, ñabardurak eta erritmo bereziak.

Etsenplu bat eman dezagun: badira adinetako euskal hiztun ipartarrak egun ere dardarkari hobikaria ahoskatzen dutenak, Hegoaldekoak balira bezala eta badira bestalde, haur denboran euskal dardarkari hobikaria ongi ematen zuten hiztunak, ondotik frantsesaren dardarkari ubularra ahoska-

tzen ikasi dutenak; egungo egunean adinetako euskaldun ipartar horiek euskaraz dihardutenean, bata ala bestea ahoskatzeko gai dira, baina ez da sakon aztertu zinez zer gertatzen den eta nola jokatzeko duten. Soziolinguistikaren alderditik ez da auzi makala, baina aldagai hau euskaraz aztertu gabe dago. Mintza gaitetzen ahoan bilorik gabe: zerk eragiten dio Amikuzeko hiztun adinetako bati euskaraz Hego Euskal Herriko batekin diharduenean dardarkari ubularra baliatzea, garbi dakigularik haur denboran lagun horrek bazekiela dardarkari hobikaria ahoskatzen eta oraino ere euskaraz ahoska dezakeela?

Euskaldun bat Parisen edo Lourdesen urte batzuez sehi egon izanak ez du osoki bermatzen edo justifikatzen egun euskaraz diharduenean hiztun horrek dardarkari ubularra baliatzea. Badira honelako kasuak, baina baita salbuespenak ere. Hots ubullarrera lerratu dira guk ezagutu ditugun zenbait lekuko: Gabadi eta Ostankoako lekukoak, Parisen sehi egonak; Laphizketakoa, Lourdesen sehi egona; baita honen emazte berroetarra ere, Lourdesen egon ez bada ere. Bithiriñako lekukoa ez da inon sehi egon, baina hots ubularra baliatzen du euskaraz; haur denborako eskola ote da eragilea? Donapaleuko lekukoak aita-amak herri ttiketakoak zituen, ama garaztarra gainera, eta hots ubularra ahoskatzen du; euskaldun hiritarra izanik, nahiz beti baserriko lanetik bizi izana, uler liteke frantsesaren presio handia bildu duela luzaz. Eta Gamue, Ilharre, Sarrikota edo Domintxainen ere entzun dugu lekukoengandik hots ubularra.

Uler bedi ez gairela ukatzen ari frantsesaren prestigioak eragin dezakeela euskaraz ere hots ubularra ahoskatzea, baina prestigioa arrazoi absolututzat saltzen badugu, nola ulertzen da beste hainbat euskaldun ipartar adinetakok oraindik euskaraz dardarkari hobikaria ahoskatzen jarraitzea? Jokoaren teoria honetan dardarkari hobikariari halako euskal baserri kutsu zenbait itsatsiko litzaioke, ala?

Oragarre herri euskalduntzat sal geniezaioke Hego Euskal Herriko nornahiri arazo handirik gabe, baina ez da guztizko egia; herri honetan ez da 40-45 urte inguruko jende erdaldunik falta, *ergo...* frantsesak indar handia hartu du Oragarren. Halaz ere, Parisen sehi egon zen emazteki oragartar batek naturaltasun osoz ahoskatzen du dardarkari hobikaria enekiko elka-

rizketan Behauzen; elkarrizketan gurekin batean den haren senar behauz-tarrak ere hobikaria ahoskatzen du: ez dago hots ubularraren herexarik.

7.7. Desberdina da Zuberoan gertatu dena. 1840tik honat sortu belau-naldi guztiek osoki galdu dute bokalarteko ttak edo *r* kontsonantea ahoska-tzea eta horren ondorioz gertatu da hainbat zuberotarrek dardarkaria beha-rrean ttak ahoskatzea: cf. *beria* «berria» (Etxarri), *heria* «herria» (Etxarri) & *herietan* (Ainharbe), *izigari* (Ainharbe)... Eta alderantzizkoa ere gertatzen da bokal artean Zuberoan: *r* beharrean *rr* dardarkaria baliatzen dute *hirru* «hiru» (Pag), *hurra* «ura» (Arüe, Oih, Ainharbe), *orro* «oro» (Arüe, Sarkp, Oih, Pag), *Xüberroan* (Sarkp) hitzetan.

7.8. Alderdi fonikoan anitz gertatzen diren aldetik, berrikuntzek sekula-ko lotura dute ahoskerarekin. Arberoa ibarreko Mehaine herriko lekuko batek zioenez, lehenago berak beti *ezarten* aldaera ibiltzen zuen, baina orain *ezartzen* baliatzen du: *orai uste dut ezartzen untsa dela*; euskara zuzena-go deritzo bederen. Sakonean ohiko gertakaria dugu: zenbatenaz gehiago entzun, hainbatenaz behartzenago dute aldaera berriek lekukoa era berria baliatzera, handia baita presioa eta oharkabeen bezala –gizarte-jarduna bai-ta hizkuntza–, arrastora sarturik aldaera berria baliatzen hasten da; aldaera berriaren agerpen-maiztasuna areagotuz bezala, presio handiagoa gertatzen da berriaren alde. Hasieran ondorioa zena arrazoi eragile ere bihurtzen da geroago: berrikuntzaren arrazoiek eta ondorioek elkar elikatzen dute.

7.9. Aipatu dugun *rten* → *rtzen* berrikuntzak bere ñabardurak ageri ditu Zuberoako mugako Nafarroa Behereko herrietan, hauetan *rz* kontsonante tal-dea gordetzen baita oraino, horregatik, Sorhapürü herrian *r* ondoko txistukaria igurzkaria da eta ez afrikatua, *erorzen* eta *ezarzen* adibide berriak entzun ditugu. Hauen kide dira eskualdeko aldaera ez afrikatu gehiago ere: *borxaz*, *marxo* / *sagarze*, *sorzex*, *-tarziin*, *urzo*, *zorzi*... Laphizketakoa da *zeRzeat* «zertzera».

8. Ahoskera gramatikari itsatsirik

8.1. *Guiristinho Perfeccioniaren Pratica*... edo Nafarroa Behereko 1782ko *Alphonsa Rodriguez* euskal testu itzulian **iron* aditzaren zuketako *zirozugu*

«dezakegu» aldaera behin ageri da, baina honen kideztat har dezakegun *ziroguzu* «dezakegu», berriz, hamabi aldiz; argi da adizkia bera dela, baina aldea dago morfemen kokagunean: lehenean subjektuaren morfema datibo etikoaren morfemaren ondotik doa, baina bigarreanean aitzinean ageri da. Lehen pertsona aktibo singularretik pluralera morfemen hurrenkera aldatzen dela erakusten digute *Pratica*-ko honako aldaerek: *dakit* → *ziakizut*, baina *dakigu* → *ziakiguzu*, ez **«ziakizugu». Alta, Zuberoan Emmanuel Intxauspek *zu* + *gu* hurrenkera dakar 1856an: *édan dezakezúgu* «edan dezakegu» dago Sen Mathiuren ebanjelioan (111).

Honekin loturik dago egungo egunean Amikuzen entzuten den txandaketa morfologiko bat, izan ere zuketako «dugu» adizkia *dizü* edo *dizü* izan baitaiteke, baina baita *diüzi* edo *diüzi* ere; zinez, batzuetan ez da aise bereiztea lekukoak dioena lehen aldaera ala bigarrena den. Idatzizkoan aise ikusten da morfemen kokagunea, baina belarriz entzutean adibide batzuk lauso eta ilunak dira. Berez morfologia diakronikoko auzia dena ahoskera eta entzumen auzi bilakatzen zaio datu biltzen diharduenari.

Egungo Oragarren *ordian guk eztiuzu denak untsa konprenitzen* bildu dut, non badirudien *gu* morfema *zu* morfemaren aitzinean dela; egun Sorhapürün *horxetan badüzi arbole at* entzun dugu, *gu* morfemaren *u* bokala palatalizaturik, Nafarroa Beherean ohi bezala. Argi denez, zuketan bilakabide fonikoak gertatu dira; *u* bokalaren palatalizazioa dago *dizu* > *dizi* bezalakoetan eta hartara, ulertu beharko genuke 1782ko *Pratica*-ko *diüzi* «dugu» emaitzan –sakonean *diguzu* ez baldin badago–, *dizugu* > *dizü* > *diüzi* metatesia gertatu dela.

Oragarren, arestian aipatu dugun hiztun horrek berak emana da *hori ein dizü hoei urthez*, osagarri pluralaren komunztadura gorabehera arestiko *eztiuzu* horren eduki bera dirudiena, baina morfemen hurrenkera aldaturik. Gabadin entzun dugu «*so^halla*» *erten dizü*; Arbotin *badüzi gük e hua*; Larribarren *eman dizü memento goxoik, ba, ba*; Berroetan *gühaurek iten dizü*. Zohaztin osagarri plurala duela: *gühaurek ikhasi titzü*.

8.2. *Joan* aditzaren aldaera trinkoetako txandaketak ere, bokal bata ala bestea agertzeak, ahoskera auzi bat sortzen digu: *diazü* «doa» & *doazü*, bi aldaerak entzuten dira oraineko hirugarren pertsonan zuketan, nahiz *i* nagusitzen den Amikuzen:

han estekatzen tzi behorra ta badiazu beste laun batekin, eta, eatea
(Oragarre)
bi artho-xurizale badiatzu (Oragarre)
hau askalduik badiazu (Amorotze)
bethi badiazu bat bestiaikin (Donapaula)

Hurranen adibidean lehen pertsonari dagokio adizkia:

Amiketat baniazü... ni hamar urthendako baniazü; aitag erran tzatan
hau: «hi bahoia hamar urthendako, hoei urthe eoin hiz» (Behauze)

Aldiz, Zuberoako muga ondoko Arboti herriko adibide hauetan *o* ageri da:

gü bagoatzü, bena jendea etzü juiten (Arboti)
bidia har eta denak batian baotzü ardiak bezala (Arboti)

Hain zuzen ere, Zuberoan Intxauspek *joan* aditzean dakarren sisteman *goátzü* eta *doátzü* ditugu, *o*-dunak (1858: 446). Ezaugarri honetan Nafarroa Behereko Amikuzeko Arboti xiberotarren *o* ereduari lotua da.

8.3. Adizki batzuetan monoptongazioak gauzatu direlako —ez dirudi *liteke* → *leteke* balizko bokal asimilazioa gertatu delako denik—, txandaketa bokalikoak ageri da **edin*-en adizkietan Amikuzen eta *leteke* & *litake* vs. *leteke* eskema ageri zaigu; hiru adizkiak entzun daitezke eskualdeko hiztunen ahotik. Lüküzén *leteke* ageri da eta baita iraganeko adibide *phestak zezteken segürra han* ere. Amendüzen, berriz, *uai eneteke kapable* eta *zakhur batek bizpahirü hil ta han anbalatü zetekenex* «zatekeenez» perpausak entzun ditugu; Arbotin *enetekezü* eta Donapaleun *letekela*. Amikuzeko Gabadira ezkondu pagolar batek *erran leteke* aldaera eman du.

Ez da asimilazio baten kontua bezain ximplea, eman dezagun: *liteke* → *leteke*. Ondoko Zuberoan *leteke* dagoenez, pentsa genezake bereizketa hau zatiketa zahar baten emaitza dela: *lediteke* → *leteke* → *leteke* monoptongazioa alde batetik eta *lediteke* → *leteke* → *liteke* monoptongazioa bestetik. Batera ala bestera gertatu, morfologiaren eraikuntzatik abiatzen den egitura batean monoptongazio fonikoak emaitza desberdinak eragin ditu euskal geografian eta auzia ahoskeraren jokalekura ekarri du; ez dakigu historikoki bilakabide bakoitza zein garaitakoa den, baina *leteke* erako aldaerak ez dira testuetan ageri; berrixkoak direlako ote da?

Bibliografia

Alberdi, A., 2014, *Ahoskera*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

Bonaparte, L.-L., 1991 [1869], *Le verbe basque en tableaux*, in *Opera Omnia Vasconice I*, Bilbo, Euskaltzaindia, 175-442.

Camino, I., 2016, *Amikiuze eskualdeko ^heskuara. Mendaur bilduma 11*, Bilbao, Euskaltzaindia (Argitaratzen).

Coyos, J.-B., 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan.

Charritton, P., 1984, *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, Donostia, Elkar.

Egurtzegi, A., 2014, *Towards a phonetically grounded phonology of Basque*, UPV/EHU-ko doktoretza tesi argitaragabea.

Elordieta, G., 2012, «Euskal azentu eta intonazioari buruzko ikerketa: *status quaestionis*», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 389-428.

Encinar, K., 2008, «Lapurdiko Aturririko euskara: Bardozeko *ü* bokalaz», *Euskera* 53/2, 383-395.

Epelde, I., 2012, «Lapurdiko itsasegiko euskararen ahoskera: Donibane Lohizune», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 307-321.

——— & O. Jauregi, 2011, «Bokal sudurkariak tentatzen», in A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Iker 26, Bilbo, Euskaltzaindia, 973-988.

Etxebarria, M., 1987, «Iniciación a la fonética acústica», *ASJU* 21/2, 475-514.

Etxebarria, P., 1992, «Euskal Ebakeraren zertzeladak», *Ele* 11-12, 169-178.

Gaminde, I., 1993, «Bizkaiko azentu-motei buruz», *Uztaro* 7, 111-140.

———, 1995a, *Bizkaieraren azentu-moldeez*, Bilbo, Labayru.

———, 1995b, «Zubereraren azentuaz», *Uztaro* 13, 107-128.

———, 1995c, «Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa», *FLV* 69, 297-321.

- , 1996, «Azentu bariazioa Gipuzkoan», *FLV* 73, 361-385.
- , 1999, *Euskaldunen azentuak*, Bilbo, Labayru.
- , 2005, «Euskara batuaren azentuaz», in P. Etxebarria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun*, Iker 17, Bilbo, Euskaltzaindia, 257-272.
- & J. I. Hualde, 1995, «Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa», *ASJU* 29/1, 175-197.
- , G. Aurrekoetxea, A. Etxebarria, U. Garay & A. Romero, 2014, *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak*, Bilbo, UPV/EHU.
- Garmendia, L., 2008, «Hizkuntza aldakortasuna Zaldibian: ikuspegi soziolinguistikoa», in Iker 19, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. biltzarra*, Bilbo, Euskaltzaindia, 101-111.
- Haritschelhar, J., 1963, «Textes folkloriques de la vallée de Baigorri», in *Actas del tercer congreso internacional de estudios pirenaicos*, Gerona, 1958, Instituto de Estudios Pirenaicos & CSIC, 51-73.
- Hiriart-Urruti, J., 2004, *Ni kazeta-egilea naiz*, X. Altzibarren edizioa, Bilbo, Labayru.
- Hooper, J. B., 1976, *An introduction to natural generative phonology*, New York, Academic Press, INC.
- Hualde, J. I., 1988, «A theory of pitch-accent, with particular attention to Basque», *ASJU* 22/3, 915-919.
- , 1993a, «Topics in Souletin Phonology», in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam-Philadelphia, Benjamins, 289-327.
- , 1993b, «Observaciones acerca de los sistemas acentuales de la zona occidental de Gipuzkoa», *ASJU* 27/1, 241-263.
- , 1998, *Euskararen azentuerak*, *ASJU*-ren gehigarriak 42, Bilbo & Donostia, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , 2014, *Los sonidos del español*, Cambridge, CUP.
- , 2015, «Basque as an extinct language», in B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*, Bilbo, UPV/EHU, 319-326.

Hurch, B., 1988, «Is Basque a syllable-timed language?», *ASJU* 22/3, 813-825.

———, 1989, «Raíces de la fonología: pensadores preestructuralistas», *ASJU* 23/1, 95-113.

——— & M. L. Oñederra, 1988, «Azterketa fonologikoaren inguruko gogoetak: fonema», *ASJU* 22/1, 213-231.

Hyman, L. M., 1981 [1975], *Fonología. Teoría y análisis*, Madril, Paraninfo.

Igartua, I., 2008, «La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de *rhinoglottophilia*», *ASJU* 42/1, 171-89.

Intxauspe, E., 1991 [1856], *Jesus-Kristen ebanjelio saintia Sen Mathiuren arauéira*, in L. L. Bonaparte, *Opera omnia vasconica* III, Bilbo, Euskaltzaindia, 161-243.

———, 1979 [1858], *Le verbe basque*, Donostia, Hordago.

Irizar, P., 2002, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental*, Bilbo, UPV/EHU & Euskaltzaindia.

Izagirre, K., 1959, 1961, «Erronkariko euskal-ondakin batzuk», *BAP* 15, 279-314. *BAP* 17, 391-407.

Jauregi, O., 2012, «Ba ote dago euskal dialektoen arteko *continuum*-ik tipologia prosodikoaren ikuspegitik?», in J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 323-336.

———, 2015, «Euskarazko silaba egiturak zen.ba.tzen», in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo, UPV/EHU, 325-336.

——— & I. Epelde, 2011, «Bokal sudurkariak gaurko lapurteran», *Lapurdum* 15, 29-42.

——— & ———, 2013, «Hasperenaren galera Iparraldeko euskararen», in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren III. biltzarra*, Gasteiz, UPV/EHU, 245-262.

Kintana, X., 1992, «Batasunerako pausoak gogoratuz», *Ele* 11-12, 23-49.

Labov, W., 1972, *Sociolinguistic patterns*, Philadelphia, University of Pennsylvania Press.

Lafon, R., 1937, «Tendance a la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers basques du nord-est», *RLR* 13, 73-82.

———, 1962, «Sur la voyelle *ü* en basque», *BSL* 57, 83-102.

Lakarra, J. A., 2011, «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berre-
raiketa: zenbait alderdi eta ondorio», *FLV* 113, 5-114.

Larrasket, J., 1939, *Le basque de la Basse-Soule orientale*, Paris, Klincksieck.

Llisterri, J., 1989, «Los sistemas vocálicos: tipología, universales y explicación fonética», *ASJU* 23/2, 435-446.

Malmberg, B., 1981 [1954], *La fonética*, Editorial Universitaria de Buenos Aires.

Matisoff, J. A., 1975, «Rhinoglottophilia: the mysterious connection between nasality and glottality», in C. A. Ferguson, L. M. Hyman, & J. J. Ohala (arg.), *Nasálfest: papers from a symposium on nasals and nasalization*, Stanford, Stanford University, 265-287.

Mitxelena, K., 1967, «Notas fonológicas sobre el salacenco», *ASJU* 1, 163-177.
Ikus orain *OOCC* 7, 2011, Bilbo, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, 649-664.

———, 1977, *Fonética histórica vasca*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
Ikus orain *OOCC* 6, 2011, Bilbo, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.

———, J. J. Beloqui, J. Elosegui & P. Sansinenea, 1953, «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», *BAP* 9, 499-536. Ikus orain *SHLV*, 1988, *ASJU*-ren gehigarriak 10, Donostia, 246-272. *OOCC* 7, 2011, Bilbo, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, 571-608.

Mogel, J. A., 1956 [1802], *Peru Abarka*, Kulixka sorta 13-14, Zarautz, Itxaropena.

Moutard, N., 1975-76, «Étude phonologique sur les dialectes basques», *FLV* 19, 5-42. *FLV* 20, 141-189. *FLV* 22, 9-54.

Oñederra, L., 1989, «Euskal fonologiako berriak 1900 arte», *ASJU* 23/1, 115-132.

———, 2004, *Fonetika fonologia hitzez hitz*, Bilbo, UPV/EHU.

———, 2015, «Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan», in M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zertzaz*

kontenta: *sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Bilbo, UPV/EHU, 491-498.

——— & O. Jauregi & I. Epelde, 2014, «Hiztunen fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania», *Lapurdum* 18, 75-95.

Pagola, R. M., 1992, *Euskal fonetika Nafarroan*, 2 liburuki, Iruñea, Nafarroako Gobernu.

Peillen, Tx., 1992, «Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk», in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7, Bilbo, Euskaltzaindia, 247-272.

Quilis, A., 1981, *Fonética acústica de la lengua española*, Madril, Gredos.

———, 1993, *Tratado de fonología y fonética españolas*, Madril, Gredos.

Salaburu, P., 1984a, *Hizkuntzaren soinu egitura*, Leioa, UPV/EHU.

———, 1984b, *Arau fonologikoak*, Leioa, UPV/EHU.

Txillardeggi, 1986, «Proposamen bat azentuari buruz», *Euskera* 31/2, 341-348.

———, 1987, «Azentuari buruzko proposamen bat», *Ele* 2, 5-20.

———, 1992, «Ahoskera baturantz», *Ele* 10, 47-71.

Vallverdú, F., 1986, «Sobre el estandard oral catalán: el modelo de lengua en TV3», *Euskera* 31/2, 317-326.

Videgain, X., 1989, *Le vocabulaire de l'élevage en pays d'Ouztibarre. Contribution aux archives de l'oralité basque*, Université de Bordeaux III, argitaratu gabeko doktoretza tesia, lau liburuki.